

NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2013ko uztailaren 22a

81. ZK.

A U R K I B I D E A

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, Nafarroako Gobernuaren 2012ko ekainaren 20ko Erabakiak eragiten dien kontusailei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (2. or.).
- Galdera, Nafarroako Foru Komunitatean, Landa Garapenari buruzko 2007tik 2013ra bitarteko Programa dela-eta, betetako gastuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).
- Galdera, gaur egun Animsa enpresa publikoak kudeatzen duen 012 zerbitzuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (5. or.).
- Galdera, unibertsitate tituludunek praktikak egin ahal izateko programari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (6. or.).
- Galdera, Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoko eta erakunde hori osatzen duten enpresa publikoen administrazio kontseiluetako kideei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (6. or.).
- Galdera, Iratxeko monasterioari buruz Espainiako Gobernuarekin sinaturiko hitzarmenaren gainekoa. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).
- Galdera, kanpoan kontratatu behar izan diren publizitate, propaganda edo kanpainetan eginiko gastuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).
- Galdera, Espainiako Estatuko abiadura handiko plataformen bidezko salgai-garraioari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).
- Galdera, Prestazio Handiko Trenaren zerbitzua “behar” duten Nafarroako enpresei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).
- Galdera, TRENASAk aurkeztutako enplegu-erregulazioko espedientea, 58 lanpostu deuseztatzekoa, saiheste aldera Nafarroako Gobernuak CAF taldearen aurrean egingen dituen jarduketei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).
- Galdera, Nafarroan izandako zirkulazio istripu kopuruari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (16. or.).

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

- Nafarroako Gobernuaren ibilgailu-parkearen kudeaketari buruzko fiskalizazio txostena, 2011ko ekitaldiko, Kontuen Ganberak egina (17. or.).
- Garinoango Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2010eko ekitaldikoa eta aurreko ekitaldietakoa, Kontuen Ganberak egina (29. or.).

F saila:
GALDERAK

Galdera, Nafarroako Gobernuaren 2012ko ekainaren 20ko Erabakiak eragiten dien kontusailei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezen Juan José Lizarbe jaunak Nafarroako Gobernuaren 2012ko ekainaren 20ko Erabakiak eragiten dien kontusailei buruz egindako galderen erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galderak 2012ko irailaren 11ko 71. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren.

Iruñean, 2012ko urriaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Nafarroako Gobernuaren 2012ko ekainaren 20ko Erabakiak eragiten dien kontusailei buruz idatziz erantzuteko Socialistas de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Juan José Lizarbe jaunak egindako galderei eta parlamentu-talde bereko foru parlamentari Román Felones Morrás jaunak egindako informazio eskaerari dagokienez (PES-00109; PES-00110; PES-00111; PES-00112; PES-00113; PES-00114; PES-00115; PEI-199), hau erantzun du Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako kontseilariak:

Nafarroako Gobernuak 2012ko ekainaren 20an hartutako erabakiaren bidez irizpideak ezarri dira Nafarroako Gobernuko departamentuek 132.000.000 euroko aurrekontu-doikuntza egin dezaten, Estatuko Administrazioarekin 2012ko martxoaren 8an adostutako aurrekontu-egonkortasunaren arloko helburua betetzeko: Nafarroako Foru Komunitatearen BPGd-aren -% 1,5, hura onetsi zen egunean eskura zeuden datuen arabera.

Erabaki horrek gastu ez-finantzariorako kreditu bateratuaren gaineko murrizketa portzentajeak ezarri ditu 2012ko ekainaren 15eko aurrekontu bateratuaren kapituluetan.

Erabakiak dioenez, departamentuetako ardura-dunei dagokie behin betikoz zehaztea zein kontusailetan eginen diren atxikipeak, eta Ekonomia eta Ogasun Departamentuaren ardura da erabakia behar bezala betetzeko behar diren jarduketak egitea.

Halaber, Gobernuaren erabaki horrek berariaz salbuetsi ditu zenbait gastu murrizketa horretatik: batzuk, esate baterako Nafarroak Estatuari egiten dion ekarpena, nahitaezko edo ezinbesteko gastuak direlako Administrazioaren funtzionamendurako; eta beste batzuk, Nafarroako Gobernuak funtsezkotzat jotzen dituelako eta aurrekontu-doikuntza orotatik babestu nahi dituelako. Hala, Gobernuaren erabakiak hauxe dio hitzez hitz: "ez dira ukituko Osasun Departamentuaren kontusailak".

Erabakiari erantsitako agirian xehetasunez azaltzen dira kanpoan utzitako kontusailak, eta zehaztu egiten da analisitik kanpo utzi dela Osasun Departamentu osoa, baita Gizarte Politikako Departamentuaren mendeko zentroetan prestazio berak estaltzen dituzten beste kontusail batzuke ere (botikak eta osasun materialak). Hona hemen kanpoan utzitako zenbatekoa, taula honetan:

Kontusailak	Aurrekontu bateratua
Osasun Departamentua	919.158.274,44
920002 91800 2215 231B00	
Botikak eta osasun laguntza	9.710,00
920002 91800 2216 231B00	
Material klinikoa	4.860,00
920003 91800 2215 231B00	
Botikak eta osasun laguntza	9.710,00
920003 91800 2216 231B00	
Material klinikoa	980,00
930004 94000 2215 231700	
Botikak eta osasun laguntza	1.560,00
Kontusailak, guztira	919.185.094,44

Era berean komeni da erabakiaren eranskinen aipamena egitea, erabakian zehazten diren Hezkuntzako kontusailei dagokienez. Datu horiek Nafarroako Gobernuaren web orrian ere argitaratu dira. Komeni da kontuan hartzea kontseilariak irailaren 20an Hezkuntza Batzordearen aurrean agertu zenean eman zituen gainerako datuak ere.

Dagoeneko, bestalde, Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko Departamentuari dagokionez, jarduketak egin dira honako kontusail hauean: Ereiteko patataren laborantza sustatu eta babestea OPPOSaren bitartez (% 100), "Eskola-umeentzako Fruta" programa (% 38,69), Aseguru primen konpentsazioa Agroseguroren bitartez (% 18,93), Nafarroa Jatorri Deituraren Kontseilu Arautzailearentzako diru-laguntza (% 17,76), eta Hitzarmenak Foresnarekin (% 9,97) eta Ademanekin (% 17,94).

Jakinarazten dizut Nafarroako Gobernuak hiru hilean behin aurrekontu-betearazpenari buruzko txostena bidaltzen diola Nafarroako Ogasun Publikoari, apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen 59. artikuluan xedatutakoari jarraituz, eta dagoeneko bidali dela 2012ko bigarren hiruhilekoko txostena; bertan ikus daiteke noraino bete den aurrekontua departamentu guztietan kontusailez kontusail.

Beste alde batetik, ongi dakizunez, aurrekontuaren betetze mailari buruzko datuak publikoak dira, eta joan den martxotik Gobernuaren web orrian hilerok argitaratzen dira hilaren itxierako datuak; abuztukoak dagoeneko argitaratuta daude.

Nafarroako Gobernuaren ekainaren 20ko erabaki horren eragin mailari dagokionez, aurreztu beharreko zenbatekoak kapituluka ezartzen baititu, zenbateko horiek gauzatzen joanen dira aurrekontu-ekitaldiak aurrera egin ahala; izan ere, baliteke aldaketak egitea, sortzen diren lehentasun eta premien arabera, eta horregatik ezin da oraindik zehaztu departamentuen kontusail eta aurrekontu-lerro guztiei erabakiak nola eraginen dien edo bakoitza zenbateraino murriztu edo izoztuko den. Bestalde, dakizunez, urte amaieran jakinen da aurrekontuaren eta haren kontusailen azken betearazpenaren berri, eta bitartean Parlamentuak aurrekontu-betearazpenari buruzko txostenak jasotzen jarraituko du hiru hilean behin.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 14. eta 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2012ko urrian

Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako kontseilaria: Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia

Galdera, Nafarroako Foru Komunitatean, Landa Garapenari buruzko 2007tik 2013ra bitarteko Programa dela-eta, betetako gastuari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Foru Komunitatean, Landa Garapenari buruzko 2007tik 2013ra bitarteko Programa dela-eta, betetako gastuari buruz José Fernando Ibiltzieta Olleta jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2012ko irailaren 25eko 75. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2012ko urriaren 16an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Fernando Ibiltzieta Olleta jaunak ondoren azaltzen diren gaiei buruz idatziz erantzuteko galdera egin du (8-12/PES-00130):

1.- Zenbat egiten du Nafarroako Foru Komunitatean, Landa Garapenari buruzko 2007tik 2013ra bitarteko Programa dela-eta, 2011n guztira betetako gastuak?

2.- 2011n egindako gastutik, zein izan da Nafarroako Gobernuak betetako gastua, eta zein Europar Batasunak Feader programaren bitartez betetako?

3.- 2011n egindako gastuetatik, Nafarroako Gobernuak nahiz Europar Batasunak ardatz bakoitzera bideratutako zenbateko osoak xehakatuta:

- a) Zenbat diru bideratu da 1. ardatzera (nekezarritza sektorearen lehiakortasuna)?
- b) Zenbat diru bideratu da Feader programako 2. ardatzera (garapen iraungarri eta ingurumenarekiko begirunetsua)?
- c) Zenbat diru bideratu da 3. ardatzera?
- d) Zenbat diru bideratu da 4. ardatzera (Leader)?

Galdera horri dagokionez, hau erantzun du Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko kontseilariak:

Nafarroako Foru Komunitateko Landa Garapenari buruzko 2007tik 2013ra bitarteko Programa Nafarroako Gobernuaren 2007ko maiatzaren 7ko Erabakiaren bidez eta Batzordearen 2007ko abenduaren 4ko C(2007) Erabakiaren bidez onetsi zen. Beheko taulan ageri da zenbateraino bete den programa hori 2011n, Ibiltzieta jaunak eskatutako moduan xehakatuta:

Garapen ardatz estrategikoa		2011n betetako gastu publikoa (euroak)		
Zk	Izena	Guztira		Nafarroako Gobernua
		(1) = (2) + (3)	(2)	(3)
1	Nekazarritza eta basogintza sektorearen lehiakortasuna handitzea	32.969.175,22	9.788.498,42	23.180.676,81
2	Ingurumena eta landa ingurunea hobetzea	10.740.857,64	5.907.458,52	4.833.399,12
3	Landa eremuetako bizi kalitatea hobetzea eta landa ekonomia dibertsifikatzea	1.304.063,80	652.031,88	652.031,92
4	LEADER	2.452.883,28	1.349.085,78	1.103.797,50
	Guztira	47.466.979,94	17.697.074,60	29.769.905,34

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 14. artikuluan ezarritakoa betez.

Iruñean, 2012ko urriaren 15ean

Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko kontseilaria: José Javier Esparza Abaurrea

Galdera, gaur egun Animsa enpresa publikoak kudeatzen duen 012 zerbitzuari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Txema Mauleón Echeverría jaunak gaur egun Animsa enpresa publikoak kudeatzen duen 012 zerbitzuari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2012ko irailaren 25eko 75. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2012ko urriaren 16an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeko foru parlamentari Txema Mauleón Echeverría jaunak idatziz erantzuteko egindako galderari dagokionez (PES 126), hau erantzun du Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuko kontseilariak:

1. Nafarroako Gobernuak –Toki Administrazio Departamentuak– aurreikusita al dauka 012 Zerbitzua, zeina gaur egun Animsa enpresa publikoak kudeatzen baitu, CICNA enpresari esleitzea?

Jada ez dago Toki Administrazio Departamentuaren ardurapean 012 telefono bidezko laguntza zerbitzua, orain Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuko Gobernu Irekiaren eta Teknologia Berrien Zuzendaritza Nagusiaren eskumenekoa baita. Abuztuaren 24ko 128/2011 Foru Dekretuak, Lehendakaritzako, Administrazio Publikoetako eta Barneko Departamentuaren oinarritzko egitura ezarri zuenak, orduetik aurrera Gobernu Irekiaren eta Teknologia Berrien Zuzendaritza Nagusiari esleitu zizkion 012 zerbitzuaren gaineko eskumenak. Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuaren egitura organikoa ezartzen duen uztailaren 25eko 69/2012 Dekretu berriaren ere esleipen horri eutsi zaio.

Nafarroako Gobernuak aurreikusita dauka zerbitzu horren ardura Tracasa enpresa publikoari ematea gomendio bidez.

2. Hala baldin bada, behartuta al dago alde aurretik lehiaketa publiko bat egitera? Halakorik egin al du? Esleipenaren espediente osoaren kopia jaso nahiko genuke, baldin eta halakorik badago.

Gobernuak bere enpresa publikoei egiten dizkien gomendioak nahitaez bete beharreko eginbeharrak dira, entitate instrumental bati agintzen zaizkionak. Ez dira administrazio kontratuak, eta, beraz, ez dira lehiaketa publikoaren bidez esleitzen. Horregatik, entitate instrumentalek ezin izanen dute parte hartu beren entitate nagusiak antolatzen dituen esleipen prozeduretan. Gomendio hori, goian adierazi denez, aurreikusita dago, oraindik ez da onetsi eta oraindik ez dago esleipenaren edo, hobeki esanda, gomendioaren espedienterik.

3. Enpresa esleipen-hartzaile berria behartuta al dago zerbitzua une honetan Animsa enpresan ematen duten langileak subrogatzera?

Zerbitzua orain arte egin duen enpresaren orde bestea batek kudeatzen badu, baliteke subrogazio-betebeharrak sortzea; lan arloko legerian enpresen ondorengotzari buruz ezarritako betebeharrak izanen lirarteke, eta hori ukitutako enpresen arteko harremanetan argitu beharreko gaia da.

4. Hala baldin bada, haien gaur egungo lan baldintzak errespetatuko al dira enpresa esleipen-hartzaile berrian?

Lehen esan denez, ukitutako enpresen arteko harremanetan argitu behar da kontu hori. Nolanahi ere, zerbitzua kudeatuko duen enpresak errespetatu egin beharko ditu lan arloko arau aplikagarrietan ezartzen zaizkion lan-baldintzak.

Iruñean, 2012ko urriaren 10ean

Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuko kontseilaria: Javier Morrás Iturmendi

Galdera, unibertsitate tituludunek praktikak egin ahal izateko programari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin José Miguel Nuin Moreno jaunak unibertsitate tituludunek praktikak egin ahal izateko programari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2012ko irailaren 25eko 75. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2012ko urriaren 17an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeko foru parlamentari José Miguel Nuin Moreno jaunak Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuaren unibertsitate-tituludunentzako praktika programari buruz idatziz erantzuteko egindako galderari dagokionez (PES 128/2012), hau erantzun du Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuko kontseilariak:

Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuak antolaketan egin berri dituen aldaketen

ondorioz, Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutua erakunde autonomoak betetzen zituen eginkizunak Saileko zuzendaritza nagusiek hartu dituzte beren gain, eta ukitutako langileak zuzendaritza horietan sartu dira. Iraungitako erakunde autonomoan egiten ziren jarduera gehienek jarraitu egiten dute.

Hain zuzen ere, Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuan azaroaren 17ko 679/2003 Foru Dekretua aplikatuz unibertsitate-tituludunentzat garatzen ari zen praktika programa Lehendakaritza, Justizia eta Barne Sailak hartu du bere gain, zenbait aldaketa eginda, antolaketa berriaren ondorioz. Kontraturik zeuden zortzi unibertsitate-tituludunek lehengo jarduera berak egiten dituzte, eta Foru Komunitateko Administrazioarekiko kontratuzko harremanetan izan duten aldaketa bakarra atxikipen organikoaren aldaketa da.

Praktika programa horrek 2013. urtean iraunen ote duen, oraindik ez da erabaki.

Iruñean, 2012ko urriaren 15ean

Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuko kontseilaria: Javier Morrás Iturmendi

Galdera, Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoko eta erakunde hori osatzen duten enpresa publikoen administrazio kontseiluetako kideei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoko eta erakunde hori osatzen duten enpresa publikoen administrazio kontseiluetako kideei buruz Ana Beltrán Villalba andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2012ko irailaren 25eko 75. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2012ko urriaren 18an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularreko foru parlamentari Ana Beltrán Villalba andreak Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoan (CPEN) dauden enpresa publikoen eta CPE-Nen beraren administrazio kontseiluetako kideei buruz idatziz erantzuteko egindako galderari dagokionez (PES-129), hau erantzun du Nafarroako Gobernuako Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Kontseilariak:

**NAFARROAKO ENPRESA KORPORAZIO
PUBLIKOA**

Sozietate Publikoen Administrazio Kontseiluetako
kideen zerrenda
2012ko urriaren 16a

**NAFARROAKO ENPRESA KORPORAZIO PUBLIKOA,
S.L.U. (CPEN)**

Lehendakaria: Yolanda Barcina Angulo and.

Lehendakariordea: Anai Astiz Medrano jn.

Kontseilari delegatua: Lourdes Goicoechea Zubelzu and.

Kontseilukideak: Juan Franco Pueyo jn., Reyes Calderón Cuadrado and., Judith Hualde Irigaray and., M. Ángeles Egúsqüiza Balmaseda and., Koldo Amezketa Díaz jn. eta Javier Antoñana Gastesi jn.

Zuzendari nagusia: Jesús Pajares Azpíroz jn.

CPENEN SARTUTA DAUDEN SOZIETATE PUBLIKOAK

1.- Navarra de Suelo y Vivienda, S.A. NASUINSA

Lehendakaria: Luis Zarraluqui Ortigosa jn.

Kontseilukideak: Jorge San Miguel Indurain jn., Francisco Javier Esparza Sánchez jn., César Redín Setuain jn., Pablo Cámara Baztán jn., Pedro José Cebrian Leyún jn., Nekane Agreda Arróniz jn., Javier Iturbe Ecay jn., José Antonio Marcén Zunzarren jn., Luis Antonio Ayesa Ajona jn. eta Francisco José Fernández Elizalde jn.

Zuzendari-kudeatzailea: Pedro Ardaiz Egües jn.

2.- Nafarroako Garraio eta Logistikako Agentzia, S.A. – ANL

Lehendakaria: Luis Zarraluqui Ortigosa jn.

Kontseilukideak: José Antonio Marcén Zunzarren jn., Miguel Ángel Jiménez de Cisneros Fonfría jn., Mario Sánchez Trueba jn., Luis Esain Equiza jn., Rafael Irigoyen Miquelarena jn., Antonio Monzó Boronat jn., Martín Orradre Artieda jn., Estela Moso Sarasa and., M. Raquel San Martín Ederra and., Antonio Pascual Sesma Gil jn. eta José Antonio Melero Iriarte jn.

Ahalduna: Javier Echarte Vidal jn.

3.- Ciudad Agroalimentaria de Tudela, S.L. – CAT

Lehendakaria: Lourdes Goicoechea Zubelzu and.

Kontseilukideak: José Javier Echarte Echarte jn., José Luis San Agustín Marco jn., Fernando Santafé Aranda jn., Pedro Ugalde Zaratiegui jn., M. Carmen Segura Moreno and., Luis Casado Oliver jn., Laura Sandúa Escribano and., M. José Vidorreta

Alfaro and., Javier Navarro Arellano jn. eta Bernardo Ciriza Pérez jn.

Ahalduna: Ignacio Goñi Ubieta jn.

4.- Instituto Navarro de Tecnologías e Infraestructuras Agroalimentarias, S.A. – INTIA.

Lehendakaria: José Javier Esparza Abaurrea jn.

Kontseilukideak: Rubén Palacios Goñi jn., Miguel Ángel Martínez Pérez jn., Tomás Mendivil Lizarraga jn., Ignacio Guembe Cervera jn., Juan Pablo Rebolé Ruiz jn., José Miguel del Amo Villarías jn., Juan Antonio Sola Pradilla jn., Joaquín Portoles Beltrán jn., Francisco Javier Legaz Egea jn., Ángel Eraul Dronza jn. eta Miguel Pascual Cuesta González jn.

Zuzendari-kudeatzailea: Jesús María Echeverría Azcona jn.

5.- Gestión Ambiental De Navarra, S.A. – GAN

Lehendakaria: José Javier Esparza Abaurrea jn.

Kontseilukideak: Andrés Eciolaza Carballo jn., Enrique Eraso Centelles jn., Iñaki Morcillo Irastorza jn., Pedro Zuazo Onagoitia jn., César Pérez Martín jn., Cristina Sota Pernaut and., Oscar Arizcuren Pola jn., Begoña Ganuza Bernaola and., José Antonio Mendive Rodríguez jn. eta Juan Carlos González Muñoz jn.

Zuzendari-kudeatzailea: José Torres Ruiz jn.

6.- Navarra de Infraestructuras Locales, S.A. – NILSA.

Lehendakaria: José Javier Esparza Abaurrea jn.

Lehendakariordea: Mariano Herrero Ibañez jn.

Kontseilukideak: Ignacio Arrizabalaga Rodríguez jn., Jesús Esparza Iriarte jn., José Luis López Rodríguez jn., Francisco Pérez Arregui jn., José M. Irisarri Ollacarizqueta jn., Gregorio Galilea Arazuri jn., José Ignacio Sola Jiménez jn., Ángel Pino Lozano jn., M. Begoña Urrutia Juanicotena and. eta Francisco Javier Tornaría Iguelz jn.

Zuzendari-kudeatzailea: Andrés Sola Olo jn.

7.- Empresa Navarra de Espacios Culturales, S.A. – ENEC.

Lehendakaria: Juan Sánchez de Muniaín Lacasia jn.

Lehendakariordea: José Iribas Sánchez de Boado jn.

Kontseilukideak: Edurne Elio Aldunate and., Alfredo Huarte Carcar jn., Javier Lesaca Esquiroz jn., María del Rosario Martínez González and., Ana Setien Rodríguez and., Ana Carmen Zabalegui Reclusa and., Juan Ramón Corpas Mauleón jn., Ana Elizalde Urmeneta and., José Joaquín Oroz Pascual jn. eta Helena Berruezo Valencia and.

Zuzendari-kudeatzailea: Javier Lacunza Arraiza jn.

8.- Navarra de Deporte y Ocio, S.L. – NDO.

Lehendakaria: Jesús Pejenaute Grávalos jn.

Lehendakariordea: Juan Luis Sánchez de Muniain Lacasia jn.

Kontseilukideak: Carlos Erce Eguaras jn., Joaquín Ortigosa Ocon jn., Minerva Ullate Fabo and., Marcelino Azcoiti Alonso jn., Javier Trigo Oubiña jn., José Ramón Santesteban Uriz jn., José Antonio Marañoñ Oricain jn., Prudencio Indurain Larraya jn. eta Iñigo Alli Martínez jn.

Ahalduna: Ramón Esparza Urdiain jn.

9.- Centro Navarro de Autoaprendizaje de Idiomas, S.A. – CNAI

Lehendakaria: José Iribas Sánchez de Boado jn.

Kontseilukideak: M. Fatima Baigorri Romero and., Javier Felix Carmona Salinas jn., Salvador Estébanez Eraso jn., Ignacio Iriarte Aristu jn., David Herreros Sota jn., Iñigo Huarte Huarte jn., Carmen Mier Gómez and., Jesús M. García Antón jn., Gabriel Viedma Moreno jn., Pedro M. Gravalos Falces jn. eta Santos Cerdán León jn.

Zuzendari-kudeatzailea: Pedro Pegenaute Garde jn.

10.- Navarra de Servicios y Tecnologías, S.A. – NASERTIC.

Lehendakaria: Javier Morrás Iturmendi jn.

Lehendakariordea: Marta Vera Janin and.

Kontseilukideak: José Luis Azcárate Sanz jn., Joseba Asiain Albisu jn., Marta Huarte Rodríguez and., Gregorio Eguilaz Gogorza jn., José Gabriel Iriarte Rived jn., José Contreras López jn., José Luis Ruiz Ciruelos jn. eta Valentín Elizondo Nevares jn.

Zuzendari-kudeatzailea: José Luis Menéndez Rodríguez jn.

11.- Centro Europeo de Empresas e Innovación, S.L. – CEIN.

Lehendakaria: Lourdes Goicoechea Zubelzu and.

Kontseilukideak: Imelda Lorea Echavarren and., Miren Maite Domínguez Muguero and., Juan Carlos Artazcoz Sanz jn., Rafael Mugerza Eraso jn., Laura Alba Cuadrado and., María Kutz Peironceli and., Cristina Ibarrola Guillén and., Jaime Ubillos Minondo jn., Gorka Jiménez Sánchez jn. eta José Luis Arasti Pérez jn.

Zuzendari-kudeatzailea: Pablo Romera Alonso jn.

12.- Trabajos Catastrales, S.A. – TRACASA.

Lehendakaria: Lourdes Goicoechea Zubelzu and.

Kontseilukideak: Cristina López Mañero and., Idoia Nieves Nuín and., Marta Echavarren Zozaya and., Iosu Ardaiz Loyola jn., Manuel Arana Soret jn., Fermín Muñoz Muñoz jn., José Javier Zabaleta Zuñiga jn., Julio Ortiz de Landázuri Inchaurrendón jn., Javier Remirez Apesteguía jn. eta Álvaro Miranda Simavilla jn.

Zuzendari-kudeatzailea: José M. Jiménez Bolea jn.

13.- Sociedad de Desarrollo De Navarra, S.L. – SODENA.

Lehendakaria: Lourdes Goicoechea Zubelzu and.

Lehendakariordea: Álvaro Miranda Simavilla jn.

Kontseilukideak: María Jesús Valdemoros Erro and., José Ignacio Pérez de Albéniz Andueza jn., José Antonio Sarria Terrón jn., Jorge San Miguel Indurain jn., Juan Miguel Sucunza Nicasio jn., Juan Carlos Franquet Casas jn., Jesús Pejenaute Grávalos jn., Hiscan Patrimonio II (Alberto Pascual jaunak ordezkatur), José Iriguibel López jn.

Zuzendari-kudeatzailea: Carlos Fernández Valdivielso jn.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2012ko urriaren 16an

Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilaria: Lourdes Goicoechea Zubelzu

Galdera, Iratxeko monasterioari buruz Espainiako Gobernuarekin sinaturiko hitzarmenaren gainekoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Iratxeko monasterioari buruz Espainiako Gobernuarekin sinaturiko hitzarmenaren gainean Román Felones Morrás jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2012ko irailaren 11ko 71. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2012ko urriaren 22an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Román Felones Morrás jaunak Iratxeko monasterioari buruz idatziz erantzuteko egindako galderari dagokionez (PES-00105), hau erantzun du Nafarroako Gobernuak Kultura, Turismo eta Erakunde Harremanetako kontseilariak:

Bost urte baino gehiago iragan dira Nafarroako Gobernuak Estatuko Administrazio Orokorri Iratxeko monasterioaren erabilera dohainik laga zionetik, paradore nazionala eraikitzeko.

Monasterioa Estatuko Administrazio Orokorren Ekonomia eta Ogasun arloko Ordezkaritzari emateko akta 2007ko martxoan sinatu zen, eta egintza berean higiezinak Espainiako Turismo Institutuari (Turespaña) atxiki zitzaizkion.

Orduko Merkataritza eta Turismoko estatu-idazkari Pedro Mejías eta Nafarroako arduradun sozialistek, tartean Parlamentuko galdera hau sinatu duenak, 2008ko otsailean prentsaurrean iragarri zuten, Iratxeko monasterioan bertan, obrak 2009ko hirugarren hiruhilekoan hasiko zirela. Geroago, 2008ko uztailan, obrak 2009ko azken lauhilekoan hasiko zirela iragarri zen.

Joan Mesquida Turismo idazkaria eraikina ikustera joan zen 2009ko martxoan, eta obren lizitazioa 2010ean egiten zela adierazi zuen. Obrak urtea bukatu baino lehen hasiko zirela ere esan zuen. (Ministerioaren ohar baten bidez Kultura eta Turismo Departamentuari jakinarazi zitzaion 2010eko irailean hasiko zirela obrak).

Gero, 2009ko abuztuan, obren lizitazioa 2010aren amaiera edo 2011ren hasiera aldera arte atzeratu zen.

Garaitu hartan Gorte Nagusietako María José Fernández parlamentariak gutun bat plazaratu zuen eta bertan esan zuen 2010ean ekinen zitzaiela obrei.

Ministerioak 2010eko apirilean informazio oharra eman zion Nafarroako Gobernuari. Oharrak zioenez, proiektuaren esleipena hartu zuen enpresak 7 hilabeteko epea zuen oinarritzko proiektua eta exekuzio proiektua egiteko, eta "ondoren, aurrekontuan kreditua izanez gero, obren lizitazioari" ekin ahal izanen zitzaion.

Urte bereko irailean, María José Fernández diputatu sozialistak toki hedabide bati adierazi zion Iratxeko paradorea Turespañaren lehentasunen arteko bigarren lekuan zegoela, orduki aurrera egiten hasiko ziren instalazio berriak eraikitzeko proiektuei zegokienez.

Bi administrazioek akordioa sinatu zutenetik, beraz, Espainiako Gobernuak askotan iragarri du Iratxeko monasterioko paradore nazionala obren hasiera, eta behin ere ez du bete iragarritako epea.

Nafarroako Gobernuak, berriz, bere gain hartutako konpromiso guztiak bete ditu. Eraikina hustu zuen (Etnografia Museoko piezak Lizarrako industrialdeko nabe batera aldatuz), higiezina zaintzeko ardura hartu zuen, eta Iratxeko monasterioaren ingurunea antolatzeko proiektua egin zuen.

Nafarroako Gobernuak harremanetan ari da Espainiako Gobernuarekin, lehenbailehen eta inguruabarrek bide ematen dutenean paradorea proiektuari berriro ekiteko.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2012ko urrian

Kultura, Turismo eta Erakunde Harremanetako kontseilaria: Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia

Galdera, kanpoan kontratatu behar izan diren publizitate, propaganda edo kanpainetan eginiko gastuari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin kanpoan kontratatu behar izan diren publizitate, propaganda edo kanpainetan eginiko gastuari buruz Koldo Amezketza Díaz jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2012ko irailaren 28ko 77. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2012ko urriaren 24an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Koldo Amezketza Díaz jaunak publizitate instituzionalaren arloko hainbat gairi buruz idatziz erantzuteko egindako galderari dagokionez (PES-00131), hau erantzun du Nafarroako Gobernuo Kultura, Turismo eta Erakunde Harremanetako kontseilariak:

Erantsi diren dokumentuetan ageri dira kanpo-kontratazioaren bidez sortu, egin edo bete behar izan diren publizitate, propaganda edo bestelako kanpainetako gastuen urteko zenbatekoak, 2003tik 2011ra bitarteko ekitaldietakoak, eta zenbateko horien xehakapena urtez urte, Gobernuo departamentuen artean banatuta.

Gainera, ekitaldi horietako kanpainetan 6.000 eurotik gorako gastua izan duten jarduketan zerrenda erantsi da. Hori dela eta, zehaztu beharra dago taula horretan jaso beharreko publizitate

kanpainatzen jo direla bolumen ekonomiko jakin bat gainditu eta hedabide bat baino gehiago (prentsa, irratia, liburuxkak, kartelak etab.) erabili dituztenak.

Ez dira fitxategian berariaz eta banaka jaso iragarki solteak, prentsan behin bakarrik argitaratu direnak, litekeena izan arren, beren tamainagatik, galderan aipatutako zenbatekoa gainditzea.

Ez dira banaka jaso 6.000 euroko zenbatekoa gainditzen duten desjabetzei buruzko iragarkiak ere, eta hala gerta daiteke obra publiko handien proiektuetan. Ildo horretan gogora ekarri behar da Foru Komunitateko Administrazioak ezin duela erabaki horrelako iragarkiak argitaratzea edo ez argitaratzea; nahitaez argitaratu behar ditu legearen aginduz.

Nafarroako Gobernuaren eta haren erakunde autonomoen publizitate instituzionalaren kudeaketa (diseinua eta kontratazioa) publizitate agentzietan esleitzen zaie lehiaketan bidez: lehiaketa horietako bat abisuen publizitate arruntari dagokio (testu hutsez osatutako iragarkiak, besteak beste kontratazioen, desjabetze prozeduren edo laguntzak emateko deialdietako epeen berri ematen dutenak) eta beste bat sormenezko publizitateari, hau da, testuaz gain irudi edo diseinuren bat duten iragarkiei. Publizitatearen arloko kontratu guztiak urteroko bi lehiaketatan metatu dira, eta horrela deskontu handiak eta prezio onak lor daitezke publizitatearen kontratazioan eta diseinuan.

Galderan aipatutako aldi honako agentzia hauek jaso dituzte esleipenak:

AÑO	AVISOS	CREATIVIDAD
2003	BLOCK SL	TECNA SL (*)
2004	CDC COMUNICACIÓN	UTE GAP'S MADRID - GAP'S PAMPLONA (**)
2005	GAP'S COMUNICACIÓN PAMPLONA	GAP'S COMUNICACIÓN PAMPLONA
2006	TECNA SL	GAP'S COMUNICACIÓN PAMPLONA
2007	TECNA SL	GAP'S COMUNICACIÓN PAMPLONA
2008	TECNA SL	GAP'S COMUNICACIÓN PAMPLONA
2009	EUROGAP	GAP'S COMUNICACIÓN PAMPLONA
2010	ZOSMAMEDIA SL	GAP'S COMUNICACIÓN PAMPLONA
2011	ZOSMAMEDIA SL	GAP'S COMUNICACIÓN PAMPLONA

(*) Lehiaketa publikoaren bidez esleitu ziren hiru kanpaina hauek izan ezik: PFEZaren aitoparen kanpaina eta hauteskundeetan botoa ematea sustatzeko kanpaina, Intro Comunicación y Publicidad S.A.ri esleituak, eta tabakoaren kontsumoaren aurkako kanpaina, Suivant e Imaginarte agentziari esleitua.

(**) PFEZaren aitoparen kanpaina izan ezik; horretarako lehiaketa egin zen berariaz eta Intro Comunicación y Publicidad S.A.ri esleitu zitzaion.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2012ko urrian

Kultura, Turismo eta Erakunde Harremanetako kontseilaria: Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasía

**2003-2011 BITARTEKO PUBLIZITATE GASTUA,
URTEZ URTE ETA DEPARTAMENTUKA**

	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011	TOTAL
Economía y Hacienda	541.189	284.608	239.181	242.326	347.974	432.227	465.510	176.928	125.470	2.855.413
Presidencia, Justicia e Interior	337.921	52.188	39.664	42.464	181.950	119.783	14.382	85.749	4.838	878.939
Admón. Local y Portavoz del Gobierno	126.224	1.090.947	1.456.860	1.420.270	1.066.962					5.161.263
M. Ambiente, Ord. Territorio y Vivienda	160.125	59.002	66.408	76.191	33.664					395.390
Educación y Cultura (1)	461.640									461.640
Salud	215.802	291.511	145.741	264.056	288.985	254.509	102.236	32.832	10.506	1.606.178
Bienestar Social, Deporte y Juventud	154.957	131.722	144.283	102.515	82.656					616.133
Obras Públicas, Transportes y Comunic.	357.978	165.878	174.586	264.313	237.351	285.924	262.580	119.887	7.510	1.876.007
Agricultura, Ganadería y Alimentación	44.825	43.744	42.063	46.155	30.017					206.804
Industria y Tecnología, Comercio, Turismo y	334.913									334.913
Cultura y Turismo		281.000	909.805	2.514.763	2.611.095	2.893.090	2.573.652	1.423.551	856.229	14.063.185
Educación		245.290	251.810	263.053	355.149	218.550	182.236	104.275	88.157	1.708.520
Industria y Tecnología, Comercio y Trabajo		182.954	148.932	245.898	211.440					789.224
RR.II. y Portavoz del Gobierno					661.709	1.728.610	1.262.921	576.676	207.662	4.437.578
Admón. Local					39.504	169.304	42.574	66.822	19.465	337.669
D. Rural y M. Ambiente					39.195	69.370	48.167	54.724	22.001	233.457
A. Sociales, Familia, Juventud y Deporte (3)					26.001	245.330	99.437	30.657	5.984	407.409
Ord. Territorio y Vivienda					5.454	24.643	45.761	18.477	12.400	106.735
Innovación, Empresa y Empleo					92.398	431.164	278.659	130.522	129.372	1.062.115
Presidencia, Admons. Públicas e Interior									51.602	51.602
Cultura, Turismo y RR.II.									730.901	730.901
D.Rural, Industria, Empleo y M.Ambiente									73.602	73.602
Fomento y Vivienda									5.212	5.212
TOTAL	2.735.574	2.828.844	3.619.333	5.482.004	6.311.504	6.872.504	5.378.115	2.821.100	2.350.911	38.399.889

(1) Se incluyen las actuaciones publicitarias de Cultura en el 2º semestre de 2003, a pesar de que en dicho periodo este apartado constituía ya un departamento propio.

(2) Se incluyen las actuaciones de Turismo en el 2º semestre de 2003, a pesar de que este apartado estaba adscrito ya al departamento de Cultura.

(3) Con el cambio de legislatura este departamento pasa a llamarse Política Social, Igualdad, Deporte y Juventud.

2003-2011 BITARTEKO PUBLIZITATE GASTUA
PUBLIZITATE KANPAINEN XEHAKAPENA

	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011	TOTAL
20 Aniversario de la Constitución						47.987				47.987
Administración electrónica								69.923		69.923
Año cultural de Navarra				1.032.680						1.032.680
Apertura centro urgencias Dr. San Martín						130.904				130.904
Ayudas ahorro energético						34.999				34.999
Banners en webs prensa local (*)					19.331	62.948	119.966	146.710	139.855	488.810
Canal de Navarra			213.637							213.637
Cartera servicios sociales						165.381				165.381
Concierto de Navarra en Expo-Zaragoza						20.380				20.380
Consumo responsable en Navidad	27.000	12.800	12.000							51.800
Cuñas radiofónicas (*)		52.000	53.500	45.700	62.457	99.832	78.500	119.912	110.888	622.789
Declaración Renta y Patrimonio	359.666	179.998	203.266	202.099	299.960	209.954	178.361	117.369	123.741	1.874.414
Día de Navarra	58.000	84.032	73.038	79.959	120.734	122.118	218.934	97.774	30.891	885.480
Encuentros Jóvenes Artistas						10.299	8.362			18.661
Escolarización centros públicos	44.319	48.100	13.806	16.224	20.320	19.771	18.975		40.927	222.442
Estilo de vida saludables						179.436				179.436
Exposición "Navarra, un futuro entre todos"				90.276						90.276
Exposición catedral de Tudela				24.865						24.865
Exposición pintura siglo XX						75.226				75.226
Festival Punto de Vista						16.167	17.770			33.937
Festival Teatro Clásico de Olite			42.371	56.309	66.606	73.058	68.626	62.261	41.340	410.571
Festivales de Navarra	75.110	107.575								182.685
Fomento voto en elecc. auton. y concejos	120.120				129.897					250.017
Información sobre ayudas a dependientes					42.678					42.678
Ley de Juventud y Nueva sede del INJ						55.053	42.034			97.087
Matriculación enseñanza euskera Zubiate	9.762		13.881							23.643
Nueva configuración BON en Internet					20.311					20.311
Nueva estación autobuses de Pamplona					34.200					34.200
Nuevo prefijo telefónico 848	150.018									150.018
Oferta televisión TDT				22.240			158.527			180.767
Plan anticrisis						219.187	338.059	33.255		590.501
Plan Renove de electrodomésticos				42.304	47.446	48.950	12.325			151.025
Prevención acoso escolar			40.663							40.663
Prevención consumo alcohol en jóvenes				117.295						117.295
Prevención consumo de tabaco	119.858	168.000								287.858
Prevención consumo drogas adolescentes					137.029					137.029
Prevención del cáncer		18.826								18.826
Prevención incendios forestales		35.692	24.500	29.151	19.653					108.996
Programa Acércate a las TIC					34.564	33.114				67.678
Programa acogimiento familiar		33.000								33.000
Programa bañearios tercera edad	8.520									8.520
Programa Cultur	8.218					12.843				21.061
Promoción de Navarra		82.016	78.722	73.171	101.672	49.375	49.375			434.331
Promoción Fondo Publicaciones Gobierno					16.407	18.940	6.163			41.510
Promoción Formación Profesional	54.460	73.320	77.373	79.353	81.328	106.067	82.867	60.339	35.417	650.524
Promo. portal Internet Gobierno Navarra		179.330								179.330
Reconocimiento labor profesorado					56.597					56.597
Seguridad vial		49.000	69.600	85.728	179.246	74.185				457.759
Semana del comercio		15.586								15.586
Sensibilización ante la inmigración					199.945	149.907	173.993	43.372	156.585	723.802
Teléfono información Jacobeo		24.490								24.490
Teléfono información local 012	63.000	60.000	72.616	71.076						266.692
Teléfonos Gobierno Navarra en guía telefónica		49.573	57.152	68.185	54.684	77.955	71.217			378.766
Turismo	300.415	428.235	581.595	1.203.000	2.793.768	2.936.176	2.558.156	1.364.030	1.152.345	13.317.720
V Centenario de San Francisco Javier				171.086						171.086
XXV Aniversario Mejoramiento del Fuero					102.040					102.040
TOTAL	1.398.466	1.701.573	1.627.720	3.510.701	4.640.873	5.050.212	4.202.210	2.114.945	1.831.989	26.078.689

* Estos soportes, de contratación anual, se utilizan para la difusión de diferentes iniciativas o campañas publicitarias. No obstante se han incluido de forma individualizada debido a su volumen económico.

Galdera, Espainiako Estatuko abiadura handiko plataformen bidezko salgai-garraioari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Koldo Amezketak Díaz jaunak Espainiako Estatuko abiadura handiko plataformen bidezko salgai-garraioari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2012ko urriaren 5eko 79. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2012ko urriaren 29an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Foru parlamentari Koldo Amezketak Díaz jaunak Estatu espainiarreko abiadura handiko 1992-2011 bitarteko salgai-garraioari buruz egindako informazio eskaerari dagokionez (PES-135/12), hau erantzun du Sustapeneko kontseilariak:

Espainian abiadura handiko lineetako trafiko mistoko tartetean urte bakoitzean garraiatutako salgaiei buruz RENFEk emandako datuak honako hauek dira:

Trafiko mistoko abiadura handiko lineetako salgai-garraioari dagokionez, Bartzelona eta Frantziako mugaren arteko linean bakarrik garraiatzen dira salgaiak, 2010. urteaz geroztik. Lehenagoko urteetan ez da horrelako trafikorik izan, RENFEk emandako datuen arabera.

> 2010/12/21 - 2011/12/31

Bartzelona - El Soler (Frantzia)

4.911 GIU - 63.359 t

22 bagoi - 220 kotxe (probako tren).

El Soler (FRANTZIA) - Bartzelona

2.097 GIU - 36.687 t

>2012/01/01 - 2012/09/30

Bartzelona - El Soler (Frantzia)

4.194 GIU - 64.522 t

El Soler (Frantzia) - Bartzelona

4.567 GIU - 02.820 t"

Iruñean, 2012ko urriaren 25ean

Sustapeneko kontseilaria: Luis Zarraluqui Ortigosa

Galdera, Prestazio Handiko Trenaren zerbitzua "behar" duten Nafarroako enpresei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak Prestazio Handiko Trenaren zerbitzua "behar" duten Nafarroako enpresei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2012ko urriaren 5eko 79. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2012ko urriaren 29an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak Prestazio

Handiko Trenaren zerbitzua "behar" duten Nafarroako enpresei buruz idatziz erantzuteko egindako galderari dagokionez (PES-132), hau erantzun dio Nafarroako Gobernuko Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Kontseilariak:

Prestazio Handiko Trenbidea eraikitzeak onura garrantzitsuak ekarriko dizkie Nafarroako enpresa guztiei, bereziki ekoizpenaren eta negozioaren zati handia esportazioaren eremuan egiten dutenei.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2012ko urriaren 26an

Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Kontseilaria: Lourdes Goicoechea Zubelzu

Galdera, TRENASak aurkeztutako enplegu-erregulazioko espedientea, 58 lanpostu deuseztatzekoa, saiheste aldera Nafarroako Gobernuak CAF taldearen aurrean eginen dituen jarduketei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin TRENASak aurkeztutako enplegu-erregulazioko espedientea, 58 lanpostu deuseztatzekoa, saiheste aldera Nafarroako Gobernuak CAF taldearen aurrean eginen dituen jarduketei buruz José Miguel Nuin Moreno jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2012ko urriaren 5eko 79. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2012ko urriaren 29an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeko foru parlamentari José Miguel Nuin Moreno jaunak Trenasak aurkeztutako enplegu-erregulazioko espedientea, 58 lanpostu deuseztatzekoa, saiheste aldera Nafarroako Gobernuak CAF taldearen aurrean eginen dituen jarduketei buruz idatziz erantzuteko egindako galderari dagokionez (PES-134), hau erantzun dio Nafarroako Gobernuak Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilariak:

Nafarroako Gobernuak Trenasan lana bermatzeko egin dituen jarduketei dagokionez, argi dago Foru Gobernuaren nahirik handiena Nafarroaren eremuko enpresetan ahalik eta lanpostu gehien mantentzea dela, enpresa-sarea eta jarduera ekonomikoa finkatu eta indartzeko. Horregatik, lehengo aurkeztu zen enplegu-erregulazioko espedientean lan-kontratu jakin batzuk eteteko baimena eskatu zenez, harremanak egon ziren Castejongo Trenes de Navarra, S.A. enpresarekin. Enpresa horrek esan zuenez, zeharkako lan-eskuaren zati handi bat dibertsifikazio-proiektuetan eta trenbide-sektorearekin zerikusirik ez duten produktuen bestelako garapen batzuetan ari zen.

Beste alde batetik, Arriskuen Prebentziorako eta Lanaren Zuzendaritza Nagusian aurkeztutako erregulazioko espedienteetan, eragindako enpresetan lan-harremanei balio erantsirik handiena

ekartzen duen jarduketetako bat, bi aldeen artean –enpresaren eta batzordearen artean– jarrerak hurbiltzeko saioa izaten da, hala, ahal den neurrian, planteatzen diren iraungipenen eraginak arintzen direlako. Esku-hartze hori, interesa duen aldeetako batek edo enpresa-batzordean dagoen sindikatuetakoa batek eskatzen duenean egiten da. Kasu honetan, kontsultak egiteko epean, zuzenean eragindako alderdi negoziatzaileek soilik hartu dute parte, eta Arriskuen Prebentziorako eta Lanaren Zuzendaritza Nagusiak ez du zuzenean esku hartu, negoziazio-aldiari buruz sindikatuen eta enpresaren bitartez noizean behin jasotzen diren informazioak bazter utzita; eta azkenean, bi aldeak ados jarri dira kaleratzei eta kaleratze horiek egiteko baldintzei buruz.

Sailak Arriskuen Prebentziorako eta Lanaren zuzendari nagusiaren otsailaren 21eko 205/2012 ebazpenaren bidez baimendutako lan kontratuak eteteko EEEn edukia eta baldintzak betetzearen gainean egindako kontrolari dagokionez, Trenes de Navarra, S.A. enpresari baimena eman zitzaion 91 langileren kontratuak 110 laneguneko epean eten zitzaion, 2012ko martxoaren 1etik irailaren 30era bitartean. Gainera, lan agintaritzak etenaldiaren egun kopurua nabarmen murriztu zedila lortu zuen. Hasieran proposatu ziren 180 egunetatik gehienez 110era. Ebazpen horretan, emandako baimena gauzatzeko daten berri eman zezala eskatu zitzaion enpresari. Hala ere, espedientean ageri den dokumentazioa kontsultatu ondoren, ez da inon ageri komunikazio horiek egin direnik. Baimena nola erabiltzen den egiaztatu eta kontrolatzea ez da lan agintarien eskumenetako bat. Aitzitik, baimenaren baldintzak urratu diren jakiteko eskuduna gizarte jurisdikzioa da.

Dena dela, Arriskuen Prebentziorako eta Lanaren Zuzendaritza Nagusiak Estatuko Lan Zerbitzu Publikoan dauden datuak kontsultatu ditu, baimena nola erabili den egiaztatzeko. Baimenean azaltzen ziren hilabeteen erabilerako egutegiak jaso ondoren ikusi da enpresak ez dituela gainditu etendaldirako baimendutako mugak.

Laguntzen zerrenda

Enpresa Sustapenaren Zerbitzua

Trenes de Navarra S.A.

– Azken 5 urteetan ordaindutako inbertsiorako eta enplegurako laguntzak jarraian zehaztuko dira:

Esp. zk.	Inbertsioaren aldia	Eginiko inbertsioa	Laguntza (%)	Inbertsiorako diru-lag.	Postu finkoak	Enplegurako diru-lag.	Diru-lag. guztira
5605	2006/2008	7.970.298	% 15	1.091.250	51	153.258	1.244.508
6143	2007/2010	5.981.365	% 7	357.000			357.000
Guztira		13.951.663		1.448.250	51	153.258	1.601.508

– Nafarroan ekonomia sustatzeko laguntzen babespean emandako laguntza, ordaindu gabe:

Esp. zk.	Inbertsioaren aldia	Aurreikusitako inbertsioa (*)	Laguntzaren %	Inbertsiorako diru-lag.	Ordainketaren data
MTI2	2010	3.160.000	25% (*)	500.000	2013

(*) Laguntzaren ehuneko hori eman egin zen, enpresak 30 lanpostu finko berri sortzea aurreikusi zuelako

– Produktibitatea hobetzeko emandako laguntzak jarraian zehaztuko dira:

Produktibitatea hobetzeko emandako laguntza, 19.550 euro, ordaintzeko dago, EEEren gaiaren inguruan zer erabaki zain. Araudiak behartuta, emandako laguntzak itzultzeko eskatzen dugu beti, horretarako baldintzak betetzen badira.

Zenbakia	Izenburua	Eskaeraren data	Onarturiko aurrekontua	Emandako diru-laguntza
10.616	Altzairu austenitikoak kutzak fabrikatzeko prozesua	31/01/2007	3.331.800	466.452
11.904	Altzairu austenitikoak egiturak diseinatu eta garatzea	19/12/2007	113.250	13.590

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2012ko urriaren 26an

Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguakontseilaria: Lourdes Goicoechea Zubelzu

Galdera, Nafarroan izandako zirkulazio istripu kopuruari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Eloy Villanueva Cruz jaunak Nafarroan izandako zirkulazio istripu kopuruari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2012ko urriaren 5eko 79. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2012ko urriaren 30ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularreko Eloy Villanueva Cruz jaunak Nafarro-

an azken hiru urteetan izandako zirkulazio istripu kopuruari buruz idatziz erantzuteko galdera egin du (PES-133/12), eta informazio hori eman du Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuko kontseilariak.

Iruñean, 2012ko urriaren 29an

Lehendakaritza, Justizia eta Barneko kontseilaria, Javier Morrás Iturmendi

(Oharra: Aipatutako eranskina eskuragarri dute foru parlamentariak, parlamentu-kudeaketako Ágora sisteman.)

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Nafarroako Gobernuaren ibilgailu-parkearen kudeaketari buruzko fiskalizazio txostena, 2011ko ekitaldikoa, Kontuen Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko azaroaren 12an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusirik Kontuen Ganberak emandako Nafarroako Gobernuaren ibilgailu-parkearen kudeaketari buruzko fiskalizazio txostena, 2011ko ekitaldikoa, ERABAKI DA:

1. Txosten horren edukiaren jakinaren gainean dagoela adieraztea.

2. Erabakia Nafarroako Parlamentuaren Aldizkari Ofizialean argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2012ko azaroaren 13an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Nafarroako Gobernuaren ibilgailu-parkearen kudeaketari buruzko fiskalizazio txostena, 2011ko ekitaldikoa, Kontuen Ganberak egina

AURKIBIDEA

- I. Sarrera (17. or.).
- II. Ibilgailu-parkea (17. or.).
 - II.1. Definizioa, antolamendu-egitura eta egin-kizunak (17. or.).
 - II.2. Baliabideak (18. or.).
 - II.3. Araudia (18. or.).
- III. Fiskalizazioaren helburuak, norainokoa eta mugak (19. or.).
- IV. Iritzia (19. or.).
 - IV.1. Aurrekontu-betetzea (19. or.).
 - IV.2. Legezketasuna (19. or.).
- V. Ondorioak (20. or.).
 - V.1. Langile-gastuak (20. or.).

V.2. Ondasun arruntak eta zerbitzuak erostea (21. or.).

V.3. Inbertsioak (23. or.).

V.4. Ibilgailu-parkearen kudeaketa (24. or.).

VI. Gomendioak (27. or.).

Lehendakaritzako, Administrazio Publikoetako eta Barneko Departamentuko Justizia Eta Barne Zuzendaritza Nagusiaren organigrama (28. or.).

I. SARRERA

Ibilgailu-parkearen gaineko fiskalizazioa Kontuen Ganberaren 2012ko programan sartu zen.

Azterketa-lana auditoriako bi teknikarik eta auditore batek osaturiko lantalde batek egin zuen, 2011ko abendutik 2012ko apirilera bitartean. Lantalde horrek, bestetik, Kontuen Ganberako zerbitzu juridiko, informatiko eta administratiboen laguntza izan du.

Eskerrak eman nahi dizkiegu Lehendakaritzako, Administrazio Publikoetako eta Barneko Departamentuko Segurtasun Politikak Garatzeko Zerbitzuko eta Ekonomia eta Ogasun Departamentuko Ondare Zerbitzuko langileei lan hau egiteko eman diguten laguntzarengatik.

II. IBILGAILU-PARKEA

II.1. DEFINIZIOA, ANTOLAMENDU-EGITURA ETA EGINKIZUNAK

Ibilgailu-parkea Nafarroako Gobernuaren eta haren erakunde autonomoen ibilgailu- eta makineria-flotak osatzen du.

Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuko Barne Zuzendaritza Nagusiko Segurtasun Politikak Garatzeko Zerbitzua, eta zerbitzu horren barrenean, Ibilgailu Parkearen Atala dira ibilgailu-parkeko flota kudeatzeaz arduratzen diren

organoak; horretaz gain, agintariak eta langileak garraiatzeko zerbitzuen kudeaketaz ere arduratzen dira.

Zehazki, honako eginkizunak dauzkate esleitu-ta:

- Agintariak eta langileak garraiatzea.
- Ibilgailu- eta makineria-flotaren konponketan, lanen, erregaien eta aseguruaren kudeaketa zentralizatua.
- Ibilgailuak eta makineria erosten eta renting kontratuak egiten parte hartzea. Horiek, betiere, Ekonomia eta Ogasun Departamentuko Ondare Zerbitzuak izapidetzen ditu.

2011ko uztailetik aurrera, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren departamentu-egitura berria onetsi zen, eta ibilgailu-parkearen kudeaketa-unitateetako batzuk aldatu ziren. Egitura organiko berria txosten honi atxikitako organigraman ageri dena da.

II.2. BALIABIDEAK

Langileak

2011ko abenduaren 31tik aurrera, 55 pertsona (48 funtzionario eta 7 lan-kontratadun) ari ziren lanean ibilgailu-parkean. Horietatik, 41ek gidari postuak betetzen zituzten.

Ibilgailuak eta makineria

2011ko abenduaren 31n, ibilgailu-parkearen flota osoa 915 ibilgailuk eta makinak osatzen zuten ⁽¹⁾. Esleituta daukaten erabileraren arabera sailkatuta daude eta honako mota hauetakoak dira:

- Agintarientzako ibilgailu instituzionalak.
- Departamentuen ibilgailuak: automobil arruntak, ibilgailu misto egokigarriak (zama-lanetarako eta bidaiarientzako ibilgailu industrialak), lur orotako ibilgailuak eta ibilgailu bereziak (zerbitzu mota jakin baterako baizik erabiltzen ez direnak).
- Polizia-ibilgailuak eta larrialdiak artatzeko ibilgailuak: uniformatuak, kamuflatuak, bereziak eta motozikletak.

Makineriari dagokionez, ibilgailu-parkeak erabilerara edo zerbitzu jakin batzuetarako aparatu auto-

propultsatuak dauzka, bai eta nekazaritzarako makinak ere.

Honakoak dira ibilgailu-parkearen flota osatzen duten elementuak: 439 automobil –horietatik 46 automobil instituzionalak–, 183 furgoi eta furgoneta, 84 motozikleta, 67 kamioi, 72 nekazaritza-ibilgailu, obretarako eta zerbitzuetarako 19 makina, 40 atoi eta erdi-atoi eta 11 ontzi.

Flotako ehuneko 34 Foruzaingoari atxikitako ibilgailuak dira (315); gainerakoak banatuta daude, baina, bereziki, honakoei atxikita daude: Landa Garapeneko Departamentuari (205 ibilgailu), Nafarroako Larrialdietarako Agentziari (163 ibilgailu), Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentuari (59 ibilgailu) eta Hezkuntza Departamentuari (52 ibilgailu).

Baliabide ekonomikoak

Ibilgailu-parkearen guztizko gastuak 6.057.204 eurokoak izan ziren 2011n; diru-sarrerak, berriz, 59.708 eurokoak izan ziren.

II.3. ARAUDIA

Honakoak dira, besteak beste, ibilgailu-parkeari aplikatzekoak zaizkien arauak:

- Gobernuaren Erabakia, 2006ko otsailaren 20koa, Nafarroako Gobernuaren makineria- eta ibilgailu-parkearen zerbitzuak emateko modalitateak finkatzen dituena.
- 6/2006 Foru Legea, ekainaren 9koa, kontratu publikoei buruzkoa.
- 128/2011 Foru Dekretua, abuztuaren 24koa, Lehendakartzako, Administrazio Publikoetako eta Barneko Departamentuaren egitura organikoa ezartzen duena. Foru dekretu hori azaroaren 9ko 237/2011 Foru Dekretuaren bidez aldatu zen.
- 122/2008 Foru Dekretua, abenduaren 15ekoa, Barne Zuzendaritza Nagusiari atxikirik dauden gidarien berriazko araubidea erregulatzeko duena.
- 255/2007 Foru Dekretua, abenduaren 17koa, Nafarroako Foru Administrazioaren eremuan laguntza kontratuak egiteko eskumenak berriz arautzen dituena.

(1) 2011ko abenduaren 31ko inbentariotik lortutako informazioa.

III. FISKALIZAZIOAREN HELBURUAK, NORAINOKOA ETA MUGAK

Fiskalizazioaren helburua zen gure iritzia ematea ondokoen inguruan:

- Ibilgailu-parkearen jardueraren aurrekontu-betetzea 2011n.
- Aplikatzekoa den legediaren 2011ko betetzea.
- Ea kudeaketa efizientzia eta ekonomia printzipioen arabera gauzatu den eta aurreikusitako helburuak bete diren.

Fiskalizazioaren norainokoa Segurtasun Politikak Garatzeko Zerbitzuari esleitutako eginkizunetatik eratorritako eragiketa ekonomikoak dira, eta honela daude jasota aurrekontuan:

- 050 "Barne Departamentuko zuzendaritza eta zerbitzu zentralak" programako "Ibilgailu-parkea" izeneko 050003 aurrekontu-proiektuan jasotzen dira parkeko unitate kudeatzaileetako langileen eta gidarien gastuak, ibilgailu instituzionalen eta parkeko instalazioen gastu arruntak eta ibilgailu instituzionalen erosketak.

- Ibilgailuak eta makineria atxikita dauden departamentuetan berariaz ezarritako kontusailetan jasotzen dira gastu arruntak eta inbertsio-gastuak eta parkeko flotaren gainerakoaren diru-sarrerak. Ibilgailu ez-instituzional horiek direla eta, soilik aztertu dira alokairu-gastuak, konponketa-gastuak, erregai-gastuak eta laguntza teknikoko zein asaguruetako gastuak.

Honakoak izan dira lanaren norainokoaren mugak:

- Ez egotea ez helburu jakin eta kuantifikaturik, ez haiek neurtzeko adierazle egokirik. Helburuak orokorrak dira, eta ibilgailu-parkearen eginkizunen deskribapen bat dira. Txosten honen II.I atalean adierazi dira eginkizun horiek.

Ibilgailu-parkearen jardueren eraginkortasuna, efizientzia eta ekonomia ebaluatzeko modurik izan ez dugun arren, haren giza baliabideen, gauza-baliabideen eta baliabide ekonomikoen kudeaketa aztertu dugu, bai eta betetako eginkizunak direla eta ezarri diren barne kontroleko prozedurak ere.

- Departamentu batzuetan, haiei atxikitako ibilgailuen konponketa-gastuak, erregai-gastuak eta aseguru-gastuak kontabilizatu dira aipatutako gastuen kontzeptu ekonomikoa identifikatu ahal izateko behar den xehakapena egin gabe edo behar diren xehetasunak eman gabe.

Hala eta guztiz ere, azterketa batzuk egin ziren konponketa-gastuak, erregai-gastuak eta aseguru-gastuak modu zentralizatuan kudeatzen dituen ibilgailu-parkearen atalak emandako datuekin. Datu horiek, izan, ere ez dute esateko moduko desberdintasunik ageri kontabilizatutakoekin alderatuta.

Lan hori Espainiako Estatuko Kanpo Kontroleko Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako eta Kontuen Ganberaren fiskalizazio-eskuliburuan jasotako sektore publikoaren kontu-ikuskaritzari buruzko printzipioei eta araei jarraituz, eta azterlanaren helburuen eta inguruabarren arabera beharrezkotzat jo ditugun hautaproba edo prozedura tekniko guztiak aplikatuz gauzatu da.

IV. IRITZIA

Lan honen irismenaren arabera, egin den fiskalizazioaren ondorioz, iritzi hau azaltzen dugu:

IV.1. AURREKONTU-BETETZEA

2011ko guztizko gastuak, agintarien eta langileen garraio-zerbitzuei, parkeko flotaren kudeaketari eta ibilgailuetan eta makinerian eginiko inbertsioei dagozkienak, 6.057.204 eurokoak izan ziren, eta honako kontzeptuei dagozkie:

Gastuak	Guztira
Langile-gastuak	1.286.219
Ondasun arruntak eta zerbitzuak	4.057.186
Inbertsioak	713.799
Guztira	6.057.204

Gastuen guztizkotik, ehuneko 67 ondasun arruntei eta zerbitzuei dagozkie (nagusiki, erregaia eta flotaren konponketak), ehuneko 21 langile-gastuei eta gainerako ehuneko 12a ibilgailuen erosketari.

Garraio- eta makineria-elementuak saltzeagatik 2011n kontabilizatutako diru-sarrerak 59.708 euro egin zuten.

2011n, ibilgailu-parkeko gastuen eta diru-sarren aurrekontu-betetzeak behar bezala islatzen du ekitaldi horretan izandako jarduera.

IV.2. LEGEZKOTASUNA

Orokorrean, ibilgailu-parkearen 2011ko jarduera legezkotasun printzipioaren arabera gauzatu zen.

V. ONDORIOAK

Ondoren deskribatuko ditugu eginiko fiskalizazioaren ondorio nagusien gaineko iruzkina.

V.1. LANGILE-GASTUAK

2011n kontabilizatutako langile-gastuek 1.286.219 euro egin zuten. Gidariei eta parkeko flotaren kudeaketarako langileei dagozkie.

Ibilgailu-parkeko plantillak, 2011ko abenduaren 31n, 58 lanpostu zeuzkan (horren barne direla Segurtasun Politikak Garatzeko Zerbitzuko lanpostuak, parkeari atxikitakoak). Aurreko urtean baino lanpostu bat gutxiago dago, beraz. Honakoak dira lanpostu horiek:

	Zenbat	Maila	Egoera administratiboa
Segurtasun Politikak Garatzeko Zerbitzua	8		Lanpostu huts bat
- Zerbitziburua	1		
- Enpresa-ikasketen diplomaduna	2	B	
- Ingeniari tekniko industrialia	1	B	
- Administraria	2	C	Lanpostu huts bat
- Administrari laguntzailea	2	D	
Bide Hezkuntza eta Segurtasunerako eta Ibilgailu Parkearen Kudeaketarako Atala	50		7 lanpostu huts
- Atalburua	1		
- Gidaria	36	C	4 lanpostu huts
- Gidaria	5	D	
- Ibilgailuen mantentze-lanetako teknikari ofiziala	1	C	Lanpostu huts bat
- Ibilgailuen mantentze-lanetako laguntzailea	2	D	
- 1. mailako behargina	3	C	2 lanpostu huts
- 2. mailako behargina	1	D	
- Atezaina	1	E	

“Ibilgailu-parkea” aurrekontu-proiektuari ez zitzaizkion egotzi kontratatutako langileen ordain-sariak (salbu eta lanpostu hutsa betetzeko kontratatutako kasuan), ez eta zerbitzuak soilik parke-rako ematen dituzten eta Segurtasun Politikak Garatzeko Zerbitzuko langileak direnenak ere; guztira, 430.000 euro egiten dute, eta beste aurrekontu-programa batzuetan kontabilizatu dira.

2011n, Segurtasun Politikak Garatzeko Zerbitzua berregituratu zen. Izan ere, Hezkuntza eta Bide Segurtasun Atala eta Ibilgailu Parkearen Kudeaketarako Atala batean bildu ziren, eta atalburu lanpostu bat kendu zen.

2011ko abenduaren 31n zortzi lanpostu huts zeuden. 2010ean eta 2011n ez zen izan parkeari atxikitako lanpostuen enplegu eskaintza publikorik.

Gidariei Ibilgailu-parkeko lanpostuen guztizko-aren ehuneko 71 egiten dute. 2011n, gidarien lanpostuek urtean zortzi orduko 199 lanaldi zeuzkaten, 1592 ordu guztira, Administrazioeko gainerako funtzionarioen lanpostuek bezala.

2011ko abenduaren 31n, 41 gidarietatik 33 agintariei esleituta zeuden.

Agintariei esleitutako gidarien funtzionamendu araubidea gidari-bikoteen eta sei asteko aldien arabera antolatzen dira, honako txanda hauen arabera: bost lanegun, asteleheneetik ostiralera, eta larunbata eta igandea libre; zazpi lan egun, asteleheneetik igandera eta zazpi egun libre, asteleheneetik igandera. Eguneko zortzi orduko lanalditik gorako orduak pilatu eta konpentsatu egiten dira, eta 199 lanaldiak bete daitezzen, haien ordean egun libreak ematen dira.

Zerbitzuen prestazio efektiboak, gidatzeko denboraz eta bidaiez gainera, ibilgailua prestatu eta entregatzea eta lanpostuari dagokion eta esleidiakiokeen beste edozein zeregin biltzen ditu.

Gidari guztiek egindako garraio zerbitzuen eguneroko parte bat aurkeztuko dute, non honako datuak jasoko baitira: data, ibilgailuaren matrikula; irteerako eta iritsierako kilometroak; hasierako eta amaierako ordua; gidariaren izena; agintariaren kargua edo garraiatutako pertsonaren izena, eta gidariak egindako gastuen izaera eta zenbatekoa (mantenu gastuak, bidesariak, aparkalekua, hotela eta beste).

Agintariak ez diren langileen garraioei buruz gidariak betetzen dituzten parteetan bidaiaren arrazoia eta jomuga zehaztuko dira.

Agintari bati esleitutako gidarien zerbitzuak agintariaren agendaren arabera izanen dira, eta agintari horiexen aginduak zuzenean jasoko dituzte, guztizko baliagarritasuneko eta erabateko dedikazio absolutuko araubidean. Hori dela eta, esklusibotasun-osagarria kobratzen dute.

Agintariei esleituta ez dauden gidariak agintari ez diren langileen garraioak egiten dituzte; Justizia eta Lehendakaritza departamentuetako eta beste departamentu batzuetako jakinarazpenak eramateen dituzte eta Odol Bankuaren autobusa gidatzen dute, batez ere.

V.2. ONDASUN ARRUNTAK ETA ZERBITZUAK EROSTEA

Ibilgailu-parkeko flotaren ondasun arruntan eta zerbitzuen gastuak, 2011n kontabilizatutakoak, 4.057.186 eurokoak izan ziren; honakoak hain zuzen ere:

Kontzeptua	Guztira
Ibilgailuak alokatzea	458.101
Erregaiak, labaingarriak	1.599.978
Ibilgailuak konpondu eta mantentzea	1.342.551
Energia elektrikoa, ura eta gasa	162.489
Ibilgailuen mantentzerako laguntza teknikoa	162.840
Jantziak	29.751
Aseguruak	269.618
Garbiketa eta txukuntasun zerbitzuak	25.086
Ordezko piezak	3.155
Kontsumoko eta berritze-lanetarako hornigaiak	3.617
Ondasun arruntak eta zerbitzuak, guztira	4.057.186

Ibilgailu-parkearen flotako erregaiak eta konponketek, guztira, ondasun arruntetan eta zerbitzuetan egindako gastuaren ehuneko 39 eta 33 egiten dute, hurrenez hurren.

Ibilgailu instituzionalen gastuek, gidarien gastuek (jantziak) eta Ibilgailu-parkearen instalazioen gastuek 635.794 euro egiten dute. Honako kontzeptuei dagozkien, nagusiki: ehuneko 26 energiari, urari eta gasari; ehuneko 23 ibilgailuen eta makineriaren konponketari, eta ehuneko 22 erregaiari.

Barne Zuzendaritza Nagusiak modu zentralizatuan kudeatzen ditu konponketa-gastuak, mantentze-gastuak, aseguru-gastuak konponketak kudeatzeko laguntza teknikoa eta ibilgailuen alokairua. Gastu horiek ibilgailuak edo makineria atxikita zaizkien departamentu edo erakunde autonomoek ordaindu behar dituzte. Ibilgailu instituzionalak Lehendakaritza, Administrazio Publikoetako eta Barneko Departamentuari daude atxikita.

Ondoren deskribatzen ditugu ibilgailu-parkeko flota osoak ondasun eta zerbitzuetan eginiko gastu arruntan lagin baten fiskalizazioa egin ondoren lortu diren emaitza nagusiak:

• Ibilgailuak alokatzea

2011n, ibilgailuen alokairuak, renting modalitatean, 458.101 euro egin zuen. Zenbateko hori Foruzaingoaren 66 ibilgailuri dagokie. Kontratuak 2006an, 2007an eta 2008an egin ziren, lau urteko aldi baterako, eta 2011n guztiak zeuden indarrean, alokatutako ibilgailu batzuk ematerakoan izandako atzerapenarengatik.

Renting gastuei dagokien 83.296 euroko zenbatekoa ez zen kontabilizatu. Zenbateko hori 2007an alokatutako ibilgailuen 2011ko irailetik Abendura bitarteko alokairuena da.

• Erregaiak

Ibilgailu-parkeko flotak erregaitan eginiko gastuak 1.599.978 euro egin zuen. Zenbateko horretatik, ehuneko 9 ibilgailu instituzionaleri dagokie.

Egiaztatu dugu ibilgailuetarako A gasolioaren eta berunik gabeko 98 oktanoko gasolinaren hornidura, ibilgailu-parkeak dauzkan biltontzietarako, orokorrean, Kontratu Publikoari buruzko Foru Legea betez izapidetu zela. Kontratuak 2011n adjudikatu ziren, prozedura irekiaren bidez, Europar Batasunean publikitate eginda.

Prezioen berrikuspina dela-eta, ez datoz bat baldintza administratiboan orria eta berunik gabeko 98 oktanoko gasolinaren hornidura-kontratuak. 2011ko maiatzaren 20ko kontratuan adierazten da ezen "baldintza administratibo partikularren orrien arabera ez direla prezioak berrikusiko"; orri horie-

tan, ordea, berariaz jasota dago berunik gabeko 98 oktanoko gasolinaren prezioaren zehaztapenean eskainitako prima finkoa berrikusiko dela azken hamabi hilabeteetako kontsumorako prezioen indize orokorraren bilakaeraren arabera.

• Konponketak eta haiek kudeatzeko laguntza teknikoa

Ibilgailu-parkeko ibilgailuen eta makineriaren flotaren konponketek, 2011n kontabilizatutakoek, 1.342.551 euro egin zuten. Nagusiki, honako zentro kudeatzaileei atxikitako flotaren elementuei dagozkie:

Zentro kudeatzailea	Konponketetan eginiko gastua	Ehunekoa
Foruzaingoa	539.767	40
Nafarroako Larrialdietako Agentzia	286.592	21
Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumen Departamentua	264.423	20
Ibilgailu Parkearen Atala (ibilgailu instituzionalak)	151.890	11
Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentua	78.967	6
Ikuskapen eta Zerbitzuen Zuzendaritza Nagusia	39.777	3

Konponketa-gastuekin batera, erregaiari dagozkion 32.180 euro kontabilizatu dira gutxienez ere.

Ibilgailu-parkeko ibilgailuen eta makineriaren flotaren mantentze-lanak eta konponketak administratzeko eta kudeatzeko 2011rako laguntza teknikoa 162.840 euroan adjudikatu zitzaion enpresa bati 2010ean. Urtez urte luzatu ahalko da laguntza tekniko hori, lau urtetan zehar.

Adjudikazio-espeditentean ez da ageri zerbitzu horren beharrari buruzko ez motibaziorik ez justifikaziorik.

• Energia elektrikoa, ura eta gasa

“Ibilgailu-parkea” aurrekontu-proiektuari 162.486 euro egotzi zaizkio guztira, energia elektrikoaren, uraren eta gasaren kontzeptuan. Zenbateko horretatik 35.028 euro parkeko eraikinarenak dira eta gainerakoa Barne Zuzendaritza Nagusiaren parkeko instalazioez besteko egoitzei dagokie.

• Jantziak

Jantzi-gastuek 29.751 milioi euro egin zuten 2011n; 2010ean baino ehuneko 31 gutxiago, beraz.

Jantzien erosketa bi kontratazio espeditentetan izapidetu zen, denboraldi bakoitzaren hasieran. Zenbait enpresari eskaintzak eskatu zitzaizkien: 12 enpresari neguko jantziatarako, eta sei enpresari oinetakoetarako. Hornigai horiek erosteko espeditentean izapidetzeak kontratuei buruzko legedia betetzen du, eta gastuak justifikatuta eta onetsita daude.

• Aseguruak

Ibilgailuen aseguruetan eginiko gastua 266.374 eurokoa izan zen. Nagusiki honakoei dagokie: Foruzaingoaren 264 ibilgailuri, Nafarroako Larrialdi Agentziaren 158 ibilgailuri eta Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumen Departamentuaren 198 ibilgailuri. Guztizko gastuaren ehuneko 31, 24 eta 20 egiten dute hurrenez hurren.

Ibilgailu-parkeko flotaren ibilgailuen aseguruak Europar Batasuneko atalasetik gorako prozedura irekiaren bitartez adjudikatu ziren, 94.652 euroan, BEZik gabe, 2011ko abuztaren 1etik abenduaren 31ra bitarteko aldi baterako. Aldi hori hiru urtez luzatu ahalko da, lizitazio-prezioaren gaineko ehuneko 27,82ko beherapenarekin.

Kontratazio horren espeditentea, adjudikazioa eta exekuzioa kontratuei buruzko legediaren arabera egin ziren.

Aseguruak kontabilizatu ziren ibilgailuak atxikita zaizkien departamentuen kontusailetan, adjudikazio-zenbatekoaren arabera, eta alde batzuk badaude departamentu bakoitzean aseguraturako ibilgailuei legezkiekeen gastu errealekin alderatuta; halere, horrek ez du eraginik abuztuaren 1etik abenduaren 31ra bitarteko aldirako aseguru-gastuaren guztizko zenbatekoan.

Aseguru-primaren batez besteko gastua 200 eurokoa da ibilgailuentzat eta atoiuentzat, 450 eurokoa kamioientzat eta 700 eurokoa motozikletentzat.

• Garbiketa eta txukuntasun zerbitzuak

Cordovillako Barne Zuzendaritza Nagusiaren instalazioen garbiketa-gastuei dagozkien, bertan dago eta ibilgailu-parkea. 25.086 euro egin zuten 2011n. Konprobatu dugu gastua bat datorrela 2008an adjudikatutako kontratuan ezarritakoarekin eta kasuko fakturretan egiaztatuta dagoela.

• Lokomozioa eta bidaiia-gastuak

Ibilgailu-parkearen mantenu, hotel, aparkaleku, bidesari eta abarrekoak bezalako gastuak 69.293 eurokoak izan ziren 2011n. Nabarmentzekoak dira mantenu-gastuak eta hoteletako egonaldiak, zeinek guztizko gastuaren ehuneko 68 eta 27 egiten baitute hurrenez hurren.

Barne Zuzendaritza Nagusiari esleitutako kontusail batean kontabilizatzen dira, eta ez zitzaizkion egotzi ibilgailu-parkearen aurrekontu-proiektuari, 2010ean jarraitutako irizpidez bestera.

12 gidarik egin zuten gastuaren ehuneko 56. Urtean, bakoitzak 2.000 et 7.000 euro bitarteko gastua egin zuen. Mantenu gastuen ehuneko 64 Iruñeko jatetxetan egin dira, eta batez besteko gastua 19 eurokoa izan da.

Gastu horiek, oro har, justifikatuta eta gidariak aurkeztutako zerbitzu-parteekin erkatuta daude.

V.3. INBERTSIOAK

Ibilgailu-parkeko inbertsioak 713.799 eurokoak izan ziren. Zenbateko horretatik, 705.504 euro 46 ibilgailuren erosketari dagozkio. Ibilgailu horietatik 26 Foruzaingorako erosi ziren, renting kontratuak mugaegunera iritsi zirenean.

17 ibilgailuren erosketa hartzen duen lagin bat fiskalizatu dugu (390.758 euro egiten du erosketa horrek), bai eta renting bidez alokatuta zeuden 26 ibilgailuren erosketa ere (167.930 euroan erosi ziren).

Ibilgailuen erosketa Ekonomia eta Ogasun Departamentuaren Ondare Zerbitzuaren bitartez izapidetzen da, eta aginduzkoa da ibilgailu-parkeko organo kudeatzaileek aldeko txostena eman

izatea; txosten horretan, izan ere, ebatziko da ea erosketa komenigarria den ala ez, eta hornidura-modalitatea zehaztuko da.

Ibilgailuen erosketa Ekonomia eta Ogasun Ministerioaren Estatuko Ondarearen Zuzendaritza Nagusiaren Erosketa-zentralaren bitartez gauzaten da, Foru Administrazioa 2006ko urriaren 6tik hari atxikita baitago.

Renting modalitatearen bitartez alokatuta zeuden ibilgailuen erosketa publizitaterik gabeko prozedura negoziatuaren bitartez izapidetu zen. Prozedura hori justifikatuta dago Kontratu Publikoari buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legeko 73.1.b artikuluan, non finkatzen baita arrazoi teknikoak tarteko kontratua soilik enpresaburu jakin bati eman ahal zaiola.

Eginiko fiskalizazioaren ondorioztapen nagusiak dira ezen, orokorrean, ibilgailuen erosketa aplikatzekoa den legediaren arabera izapidetu dela eta gastuak zuzen onetsi, justifikatu eta kontabilizatu direla, honako salbuespen hauekin:

- Su-itzaltze eta Salbamendu Zerbitzurako lur orotako hiru ibilgailuen erosketa –guztira 104.400 euro egiten duena– ez zen Ondare Zerbitzuaren bitartez izapidetu; erosketa egiteko, gainera, ez zen, ezta ere, Ekonomia eta Ogasun Ministerioaren Erosketa-zentralera jo, eta ez dago jasota Ibilgailu-parkeak haiek erosteko aldeko txostena eman zuenik. Ibilgailuak Nafarroako Larrialdietarako Agentziak erosi zituen.

- Landa Garapeneko Departamentuko Abeltzaintza Zerbitzurako ibilgailu bat erosteko Ondare Zerbitzuak izapidetutako espedientean, ez dago jasota, ezta ere, ibilgailu-parkearen aginduzko txostena. Erosketa 12.936 eurokoa izan zen.

- Tuterako Ospitalerako 12.817 euroan erositako ibilgailua ibilgailu instituzionalak erosteko kontusailen kontabilizatu zen, Ospitaleko kontusail batetik transferitutako kredituarekin.

2008tik 2011ra bitarteko aldian, 125 ibilgailu eta makina erosi dira, eta haien kostua 5.051.714 eurokoa izan da guztira.

Urtea	Kopurua	Zenbatekoa
2008	54	2.854.953
2009	14	690.004
2010	11	801.253
2011	46	705.504
Guztira	125	5.051.714

2011n, renting bidez alokatuta zeuden 26 ibilgailuez gainera, beste bi ibilgailu erosi ziren Foruzaingorako; hamar, Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumen Departamenturako; zazpi, Nafarroako Larrialdietarako Agentziarako, eta bat Tuterako Ospitalerako.

Inbentarioa

Egiaztatu dugu Nafarroako Gobernuaren eta haren erakunde autonomoen ibilgailuen eta makineriaren flotari buruzko inbentario bat badagoela, eta bertan, elementu bakoitzerako honakoak daude adierazita: ibilgailua edo makina zein preziotan erosi zen (ez kasu guztietan) eta noiz erosi zen, haren ezaugarri teknikoak eta ekipamendua, eta beste informazio batzuk.

Ibilgailu-parkearen flotako ibilgailu eta makina guztiak baloratuta ez daudenez, garraio-elementuei dagokien balantzeko 25.198.385 euroko saldoak ez du euskarririk inbentarioan.

Inbentarioan, baja emandako elementu guztiak ageri dira, eta berariaz adierazten da egoera horretan daudela.

489 turismo-ibilgailuen ehuneko 40 inguruk 10 urte baino gehiago dauzkate.

V.4. IBILGAILU-PARKEAREN KUDEAKETA

Atal honetan, ibilgailu-parkeari esleitutako egin-kizun batzuen kudeaketa aztertuko dugu, eta haren jardueraren adierazleak erakutsiko ditugu.

Halaber, txosten honetako aurreko ataletan deskribatutako ondorioak garatuko ditugu.

• Agintariak eta langileak garraiatzea.

2011n, lehenengo hiru hilabeteetan auto ofiziala izateko eskubidea zuten 22 agintarietatik eta bigarren hiru hilabeteetan eskubidea zuten 19 agintarietatik, 15 agintarik eta 13 agintarik, hurrenez hurren, modu iraunkorrean zeukaten esleituta ibilgailua eta gidaria.

Honakoak dira auto ofiziala izateko eskubidea duten 19 agintariak: gobernuko lehendakaria eta haren zortzi kontseilariak; gobernuko hiru lehendakari ohiak; Parlamentuko, Nafarroako Kontseiluko, Nafarroako Auzitegi Nagusiko eta Kontuen Ganberako lehendakariak, arartekoa, fiskal nagusia eta Barne zuzendari nagusia.

Auto ofiziala izateko eskubidea duten Gobernuko hiru lehendakari ohiek ez dute gidaria esleituta.

Zuzendari nagusiei, erakunde autonomoetako zuzendari kudeatzaileei, zerbitziburuei eta bestelako langileei ibilgailua eta gidaria ematen zaie eskatzen baldin badute eta aukeran ibilgailurik badago, jarduera ofizial jakin batzuetarako bidaiak egiteko eta protokolo izaera edo aparteko izaera duten beste batzuetarako.

Gidarien guztizko zerbitzuak

Honakoak izan ziren gidariak 2011n egin zituzten zerbitzuak:

	Agintariei esleitutako gidariak	Agintariei esleituta ez dauden gidariak	Zerbitzuak, guztira
Agintariak eramateko zerbitzuak	4.887	12	4.899
Beste langile batzuk eramateko zerbitzuak	223	195	418
Parkeko instalazioetan egondako egunak	739	476	1.215
Tutera	9		9
Posta	16	239	255
Gorabeherak	3	246	249
Odol bankua	8	139	147
Justizia	3	495	498
Hezkuntza	6	10	16
Modernizazioaren eta Administrazio Elektronikoaren Zuzendaritza Nagusia		124	124
Bestelako zerbitzuak, guztira	45	1.253	1.298
Parkeko zerbitzu guztiak, 2011n	5.894	1.936	7.830

Oharra: Zerbitzuak, oro har, lanaldiei edo lanegun efektiboiei dagozkie.

Agintariei esleitutako gidariek 5.894 zerbitzu egin zituzten 2011n; gidari bakoitzeko 180 zerbitzu, batez beste. Ehuneko 83 agintariak eramateko zerbitzuak izan ziren; ehuneko lau, beste langile batzuk eramatekoak izan ziren; ehuneko hamabi ibilgailu-parkeko egoitzetan emandako lanegunak izan ziren, eta gainerako ehuneko bata, azkenik, bestelako zerbitzuen artean banatzen da.

Agintariei esleituta ez zeuden gidariek guztira 1.936 zerbitzu edo lanaldi efektibo egin zituzten; 189 zerbitzu gidari bakoitzeko, batez beste. Ehuneko 26 Justiziarako eginiko zerbitzuei dagozkie; ehuneko 25 ibilgailu-parkeko instalazioetako jardunaldiei; ehuneko 13 gorabeherei erantzutekoak izan ziren; ehuneko 12 posta zerbitzuetarako izan ziren; ehuneko 10 langileak eramatekoak izan ziren; ehuneko zazpi Odol-bankurako izan ziren; ehuneko sei Modernizazioaren eta Administrazio

Elektronikoaren Zuzendaritza Nagusiari eginiko zerbitzuak izan ziren, eta gainerako ehuneko bata agintariekin eginiko bidaiak eta Hezkuntzako zerbitzuak izan ziren.

2011n, batez beste, plantillako gidarietatik 4 eta 5 bitarte ibilgailu-parkeko egoitzetan egon ziren, aurrez inongo zerbitzurik esleituta eduki gabe. Sor zitezkeen ezustekoei erantzuteko egon ziren.

Gidariak eginiko txanda eta zerbitzuen jarraipena eta kontrola egiteko prozedurak ezari dira, salbu eta agintariak eramateko zerbitzuen kasuan, halakoetan gidaria zuzenean agintariaren menpekkoa baita.

Agintariak eta langileak eramateko zerbitzuak

2011n, honakoa izan zen zerbitzuen batez besteko kopurua:

	Batez besteko kopurua	Gutxienekoa	Gehienekoa
Agintariak eramateko zerbitzuak	318,14	128	346
Agintari bati esleitutako gidariaren zerbitzuak			
- Agintariak eramateko	149,59		
- Bestelako langileak eramateko	6,83		
Agintari bati esleituta ez dauden gidariaren zerbitzuak			
- Bestelako langileak eramateko	19		

Agintari bakoitza, batez beste, 318,14 egunetan ibili zen auto ofizialean 2011n; egun horietatik 343 asteburuetakoa egunak eta jai-egunak ziren.

2011n, batez beste, 32,67 gidari egon ziren agintariei esleituta. Baldin eta auto ofiziala, gidariarekin, erabiltzeko eskubidea zuten 19 agintariak ibilgailua urteko 365 egunetan erabiliko balute, 34,85 gidari beharko lirakeke.

• Konponketa-lanak

Ibilgailuen konponketa- eta mantentze-lanak kanpoko enpresa batek kudeatzen ditu, urteko 162.840 euroko prezioaren truke. Ez dira ebaluatu zerbitzu hori zuzenean, bitarteko berekiekin, emateko edo zerbitzuaren prestazioa kanpoan kontratatzeke dauden aukera ezberdinak, bi kudeaketa formula horien efizientzia eta ekonomia konparatuta.

Enpresak, beste eginkizun batzuen artean, honakoak kudeatzen ditu: gisa guztietako errebisioak, matxura mekaniko zein elektrikoaren konponketak, txapa eta pinturako konponketak eta gurpil-aldaketak; tailerretako aurrekontuak aztertzen ditu, tailerren fakturak jaso, erregistratu eta ordaintzen ditu eta erreklamazioak artatzen ditu, besteak beste.

Behin ibilgailuaren gidariak edo erabiltzaileak enpresa kudeatzaileari matxuraren edo egin beharreko mantentze-lanaren berri eman ondoren,

enpresak esaten dio zein tailerretara eraman behar duen ibilgailua. Tailerrak konponketaren aurrekontua egiten du eta enpresa kudeatzaileak aurrekontu horri baiezkota ematen dio baimen-agindu baten bitartez.

2011n, 1.364.601 gastatu ziren 3.474 konponketa-lanetan, 157 tailerretan. Enpresa kudeatzaileak 21 tailerretara bidali zituen egindako konponketa-lan guztien ehuneko 62. Konponketa horiek, guztizko gastuaren ehuneko 68 egiten dute. 21 tailer horietako bakoitzak 19.000 eta 180.000 euro bitarteko zenbatekoak fakturatu zituen. Administrazioak ez ditu zerbitzu horiek kontratatzen. Tailerrek enpresa kudeatzaileari fakturatu dizkio zerbitzuak, eta enpresa horrek fakturak jaso eta ordaintzen ditu. Hamabostean behin, faktura horiek Ibilgailu Parkearen Atalari igortzen dizkio, tailerrei ordaindutako gastuak ordain ditzan.

Kontratutako enpresak konponketa-lanak kudeatzeagatik kobratutakoa, 2011n, 46,87 euro izan zen konponketa-lan bakoitzeko.

Administrazioak bere tailerra badauka, bi mekanikariarekin. Mekanikari horiek Foruzaingoaren ibilgailuen konponketa-lan txikiak egiten dituzte. Ibilgailuetarako bi jasogailu, konpresore bat eta orekatzaile bat badauzkate.

Hona ibilgailuen konponketa-lanaren jarduerari buruzko adierazle batzuk:

	Ibilgailu instituzionalak	Gainerako ibilgailuak
Zenbat ibilgailu konpondu diren	52	684
Zenbat ibilgailu konpondu diren, kostuarekin	52	653
Konponketa-lan guztiak	267	3.207
Konponketa-lanen kopuruak, kostuarekin	264	2.870
Konponketa-lanen zenbatekoa	154.267	1.210.334
Konponketa-lanen batez besteko kostua	584,34	421,72
Konponketa-lanen kostua ibilgailu bakoitzeko	2.966,67	1.853,50
Ibilgailu bakoitzeko konponketa-lan kopurua	5,13	4,69

Konponketa-lan guztiek gasturik ez izateko arrazoia tailerrek emandako bermea da. Bestalde, renting bidez eskuratutako ibilgailuen konponketa-lanak jabeak ordaintzen ditu, gurpil-aldaketa kenduta, urteko seigarrenetik aurrera.

Ibilgailu instituzionalei dagokienez, konponketa-lanaren batez besteko kostua 584,34 eurokoa da eta ibilgailu bakoitzeko batez besteko kostua, berriz, 2.966,67 eurokoa. Zenbateko horiek flotako gainerako autoena baino handiagoak dira.

2011n gutira eginiko konponketa-lanetatik ehuneko 75 ibilgailu bakoitzeko 400 eurotik beherakoak izan ziren eta konponketa-lanen ehuneko 28 egin zuten; ehuneko 21ek 400 eta 1.500 euro bitarteko kostua izan zuten ibilgailu bakoitzeko, eta guztizko gastuaren ehuneko 41 egin zuten; eta, gainerakoak, konponketa-lanen ehuneko laua, ibilgailu bakoitzeko 1.500 eurotik gorakoak izan ziren, eta konponketa-lanen guztizkoaren ehuneko 31 egin zuten.

Egiaztatu dugu, ibilgailu-lagin bat hartuta, 2011n eginiko konponketa-lanen gastuak ez zuela gainditzen urte horretan ibilgailu bakoitzak zeukan salmenta-balioa.

• Erregaia

Erregaiaren egindako guztizko gastua 1.599.978 eurokoa izan zen 2011n. Ehuneko 44 ibilgailu-parkeko hornigailuetan hartutako erregaiari zegokion, eta gainerako ia guztia itundutako hornigaietan hartutakoari. Hornigailu berekietan hartutako erregaiaren gastuak ehuneko 81 egiten du ibilgailu instituzionalen kasuan, eta ehuneko 39, berriz, flotako gainerako ibilgailuen kasuan.

Prozedura informatizatuak ezarri dira eta ezarritzen ari dira erositako erregaia eta ibilgailu bakoitzak hornigailu berekietan kontsumitutako erregaia kontrolatzeko.

Ibilgailu-parkeko ibilgailuek erregaia har dezakete alta emanda dauden eta zerbitzu hori eman ahal izatea eskatua duten Nafarroako hornigailu guztietan. Hornitzaile horiek erregaia ematen duten bakoitzean bete behar dituzten baldintzek eta agiri-betebeharrek bermatzen dute, oro har, hartutako erregaiaren gaineko kontrola.

Nafarroatik kanpoko hornigailuetan hartutako erregaia ez da iristen 2011n ehuneko 0,5 izatera, eta justifikatu beharreko ordainketa gisa ordaintzen dira.

2011n, 2.519 eurokoa izan zen ibilgailu instituzionalen erregaiaren eginiko batez besteko gastua.

VI. GOMENDIOAK

Atal honetan jasotzen dira ganbera honek egin dituen gomendioak, ibilgailu-parkeak ematen dituen zerbitzuak hobeki kudeatzeko.

- *Behar diren kudeaketa-mekanismoak ezartzea, berrmatze aldera ibilgailu-parkean eskuragarri dauden baliabideak efizientziaz eta eraginkortasunaz erabiltzen direla.*

- *Agintariei txoferrak atxikitzea modu ezin hobe, egoki eta proportzionatuan, efizientziari eta eraginkortasunari dagokienez, agintarien beharri-
zan ofizialak artatzeari begira.*

- *Konponketa-lanak kudeatzeko zerbitzuak emateari eta ibilgailuak alokatu edo erosteari dagokienez, dauden aukera ezberdinak ebaluatzea, eta horri buruzko erabakiak ekonomia eta efizientzia irizpideen arabera hartzea.*

- *Ibilgailu guztien eskuratzea izapidetzea ezarritako prozeduran exijitzen diren betekizunak betez.*

- *Inbentarioa osatzea ibilgailu-parkeko ibilgailu eta makina guztien balorazioarekin eta gaurkotzearekin.*

- *Helburu zehatz eta kuantifikatuak finkatzea, aurreikusitako emaitzei dagokienez, eta, halaber, haiek neurtzeko adierazleak finkatzea. Proposatutako helburuen betetze-mailaren jarraipen sistematikoa egitea.*

- *Ibilgailuak eta makineria atxikitzen zaizkien departamentuak inplikatzeko eta haiekin koordinatzea Ibilgailu Parkearen Atalak modu zentralizatuan izapidetzen dituen gastuen kudeaketan.*


- *Ibilgailu-parkeari dagokion aurrekontu-proiektuan kontabilizatzea parkeari egoztekoak zaizkion gastuak.*

Txosten hau, indarrean dagoen araudiak ezarritako izapideak bete ondoren, M^{re} Asunción Olaechea Estanga auditore andreak proposatuta egin da, bera izan baita lan honen arduraduna.

Iruñean, 2012ko azaroaren 6an

Lehendakaria: Helio Robleda Cabezas

LEHENDAKARITZAKO, ADMINISTRAZIO PUBLIKOETAKO ETA BARNEKO DEPARTAMENTUKO JUSTIZIA ETA BARNE ZUZENDARITZA NAGUSIAREN ORGANIGRAMA (abuztuaren 24ko 128/2011 Foru Dekretua, azaroaren 9ko 237/2011 Foru Dekretuaren bidez aldatua)



Garinoaingo Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2010eko ekitaldikoa eta aurreko ekitaldietakoa, Kontuen Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko azaroaren 19an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusirik Kontuen Ganberak emandako Garinoaingo Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2010eko ekitaldikoa eta aurreko ekitaldietakoa, ERABAKI DA:

1. Txosten horren edukiaren jakinaren gainean dagoela adieraztea.

2. Erabakia Nafarroako Parlamentuaren Aldizkari Ofizialean argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2012ko azaroaren 20an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Garinoaingo Udala buruzko fiskalizazio txostena, 2011ko ekitaldikoa, Kontuen Ganberak egina

AURKIBIDEA

- I. Sarrera (29. or.).
- II. Garinoaingo Udala (30. or.).
 - II.1. Datu orokorrak (30. or.).
 - II.2. Araubide juridikoa (31. or.).
- III. Helburua, norainokoa eta mugak (32. or.).
- IV. Iritzia (32. or.).
 - IV.1. Kontu orokorra (32. or.).
 - IV.2. Legezketasuna (32. or.).
 - IV.3. 2011ko abenduaren 31ko ekonomia- eta finantza-egoera (32. or.).
- V Kontu orokorraren laburpena (35. or.).
 - V.1. Aurrekontu-betetzearen egoera-orria (35. or.).
 - V.2. Aurrekontu-betetzearen egoera-orria (36. or.).
 - V.3. Diruzaintza-gerakinaren egoera-orria 2011ko abenduaren 31n (36. or.).
 - V.4. 2011ko abenduaren 31ko egoera-balantzea (37. or.).
 - V.5. Galera eta irabazien kontua 2011ko abenduaren 31n (37. or.).

VI. Iruzkinek, ondorioztapenak eta aholkuak (38. or.).

VI.1. Alderdi orokorrak (38. or.).

VI.2. Langile-gastuak (38. or.).

VI.3. Gastuak, ondasun arruntetan eta zerbitzuetan (39. or.).

VI.4. Inbertsioak (39. or.).

VI.5. Transferentzien ondoriozko gastuak (40. or.).

VI.6. Finantza-zama (41. or.).

VI.7. Tributu bidezko diru-sarrerak (42. or.).

VI.8. Bestelako diru-sarrerak (43. or.).

VI.9. Hirigintza (43. or.).

VI.10. Gorabeherak eta zalantzak (44. or.).

Udaleko Alkate ohiak eta zinegotzi ohi batek behin-behineko txostenari egindako alegazioak (46. or.).

Behin-behineko txostenari aurkezturiko alegazioei Kontuen Ganberak emandako erantzuna (52. or.).

I. SARRERA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2012ko urtarrilaren 16an egindako bilkuran, erabaki zuen, Nafarroa Bai, Bildu-Nafarroa, Izquierda-Ezkerra eta Socialistas de Navarra parlamentu-taldeek hala eskatuta, Kontuen Ganberari eskatzea fiskalizazio txosten bat egin dezan, presako izaeraz, Garinoaingo Udalaren 2010eko ekitaldiari eta aurreko ekitaldiei buruz. 2012ko urtarrilaren 19an erregistratu zen eskaera hori Kontuen Ganberan, eta 2012rako fiskalizazio-programan sartu zen.

Eskaria 2010eko ekitaldiari eta aurreko ekitaldiei buruzkoa bazen ere, gure lana zentratu da azken ekitaldiko kontuen azterketan. Kontu horiek 2011koak dira eta Udalak berriki onetsi ditu. Bereziaz aztertu dugu zein izan den egoera finantzariaren bilakaera, 2007tik hasita.

Azterketa lana 2012ko ekainetik irailera bitartean egin du bi ikuskaritza-teknikarik eta kontu-ikuskatzaile batek osatzen zuten talde batek. Talde horrek, halaber, Kontuen Ganberaren zerbitzu juridiko, informatiko eta administratiboan laguntza izan du.

Txostenak sei atal ditu, sarrera hau barne. Bigarren atalean Garinoaingo Udalarari dagozkion datu orokorrak eta haren araubide juridikoa azaltzen dira eta hirugarrenean txostenaren helburuak eta egindako lanaren norainokoa. Laugarrenean, Udalaren kontu orokorrari buruz daukagun iritzia ematen dugu, eta bosgarrenean entitate horren egoera-orri garrantzitsuenen laburpena jaso dugu. Seigarrenean, erakundearen antolaketa eta barne-kontrola hobetzeko egokitzat jotzen ditugun iruzkin, ondorioztapen eta gomendioak biltzen dira.

Eskerrak eman nahi dizkiegu Udaleko eta Orbaibarko Administrazio Zerbitzuen Batasuneko langileei lan hau egiteko eman diguten laguntza-rengatik.

II. GARINOAINGO UDALA

II.1. DATU OROKORRAK

Garinoain Erriberriko Merindadean dagoen udal soil bat da; 10 km²-ko azalera du, eta 518 biztanle zituen 2011ko urtarrilaren 1ean.

Udalak ez du inolako sozietate publikorik edo erakunde autonomorik sortu. Udala zenbait entitate-teren partaide da; entitatearen izenarekin batera, partaidetza horrek 2011n Udalarari eragin dion gastua aipatzen dugu, nahiz eta litekeena den jasotako zerbitzuengatik gastu gehigarriak ere egotea.

- Orbaibarko Administrazio Zerbitzuen Batasuna: Untzue, Garinoain, Puiu, Orisoain eta Oloritz herriek 2008ko abenduan sortutako toki entitatea.

Batasun horren eginkizuna da hura osatzen duten udalek elkarren artean eman eta ordaintzea administrazio zerbitzuak, idazkaritza, kontu-hartzailetza eta diruzaintzako eginkizun publikoetatik heldu diren zerbitzuak, bai eta zerbitzu horietako laguntza langileak eta batasuneko kideek espresuki erabakitzen dituzten aholkularitza teknikoko gainerako zerbitzuak ere.

Halaber, batasunak bere menpeko langile administratiboak atxikiko ditu udal bakoitzak eskatzen duen moduan eta denborarako.

Udalak 112.942 euro egiten duten transferentziak egin dizkio Batasunari. Diru horretatik, 64.016 euro gastu arruntei zegozkien eta gainerako zenbatekoa, 48.926 euro, egoitza eraikitzeke ekarpenari.

- Orbaibarra Garatzeko Elkartea, honako kide hauek dituena: aurrez aipatutako udalak eta Leozko Udala, Iratxetako eta Olletako kontzejuak eta beste elkarte batzuk. 4.873 euroko gastua dauka.

- -Erdialde-Mairagako Mankomunitatea: Nafarroako Erdialdeko 35 herri osatua.

- Nafarroako Erdialdeko Kirol, Gizarte eta Kultur Zerbitzuen Mankomunitatea, 1.211 euroko gastua duena.

- Tafallako Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Batasuna, 11.974 euroko gastua duena.

- Erdialdea Garatzeko Partzuergoa, honako kideak dituena: Nafarroako Erdialdeko 36 herri eta zenbait elkarte, fundazio eta irabazi asmorik gabeko entitate. 1.764 euroko gastua du.

- Tafallako Etxebizitzak Zaharberritzeko Bulegoa, 307 euroko gastua duena.

Udalak, gainera, zuzenean, Musika Eskolaren zerbitzuak ematen ditu, eta, zeharka, 0-3 urteko haurrentzako eskola.

2011ko abenduaren 31n, honakoak ziren langileak: bederatzi musika irakasle eta zerbitzu anitzetako langile bat. Gainera, Orbaibarko Administrazio Zerbitzuen Batasunaren langileak dauzka: zehazki, administrari laguntzaile bat, zeina udaletxera astean hiru egunez joaten baita; idazkari eta kontu-hartzailea dena, zeina udaletxean baitago baina ez modu erregularrean; eta administrari ofizial bat, astean behin Udalaren kontabilitateaz arduratzen dena.

Honen segidan, Udalak ematen dituen zerbitzu publiko nagusietako batzuk eta zerbitzu horiek emateko modua adierazten dira:

<i>Udal Zerbitzuak</i>	<i>Udala</i>	<i>Zerbitzuen batasunak</i>	<i>Ondasunen doako lagapena eta erabilera pribatua</i>	<i>Zerbitzu-kontratua</i>	<i>Mankomunitate/Partzuergoa</i>
<i>Zerbitzu administratibo orokorrak</i>		X			
<i>Eskualdea sustatzeko zerbitzuak eta tokiko garapeneoak</i>		X			
<i>Oinarrizko gizarte-zerbitzua</i>		X			
<i>0-3 urteko haur eskola</i>				X	
<i>Hirigintza</i>		X			
<i>Musika-eskola</i>	X				
<i>Hilerria</i>	X				
<i>Igerilekuak</i>			X		
<i>Kiroldegia</i>			X		
<i>Futbol zelaia</i>	X				
<i>Kirol jardueren kudeaketa</i>					X
<i>Ur hornidura eta hiri hondakinak</i>					X

II.2. ARAUBIDE JURIDIKOAK

Toki-entitate honi aplikatzekoa den araubide juridikoa, funtsean, honako hauek osatzen dute:

- Uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea, Toki Administrazioari buruzkoa.

- Martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea, Nafarroako toki ogasunei buruzkoa.

- 1998ko irailaren 21eko 270/1998, 271/1998 eta 273/1998 foru dekretuak, zeinak Nafarroako Toki Administrazioarako gastu publikoaren aurrekontuari, aurrekontu-egiturari eta kontabilitateari buruzkoak baitira.

- Urriaren 29ko 11/2004 Foru Legea, Nafarroako toki araubidea gaurkotzekoa.

- 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, toki araubidearen oinarriak arautzen dituena.

- Abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretua, Nafarroako Administrazio Publikoaren Zerbitzuko Langileriaren Estatutuaren Testu Bategina onetsi zuena.

- 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, diru-laguntzei buruzkoa.

- Kontratu Publikoei buruzko 6/2006 Foru Legea, ekainaren 9koa, otsailaren 14ko 1/2007 Foru Legeak, 6/1990 Foru Legea toki-kontratazioari dagozkionetan aldatzen duenak, toki-entitateentzat ezarritako berezitasunekin.

- Abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legea, lurralde antolamenduari eta hirigintzari buruzkoa.

- Ekainaren 11ko 12/2010 Foru Legea, defizit publikoa murrizteko neurri bereziak Nafarroako Foru Komunitaterako moldatzen dituena.

- Uztailaren 5eko 15/2010 Legea, merkataritza-eragiketen berankortasunaren aurkako neurriei buruzkoa.

- Kontabilitate publikoaren plan orokorra, toki-administrazioari egokitua, Ekonomia eta Ogasun Ministerioak 1990eko uztailaren 17ko aginduz onetsitakoa.

- Udalaren 2011ko aurrekontuaren exekuzio oinarriak eta gainerako barne arauak.

III. HELBURUA, NORAINOKOA ETA MUGAK.

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeari, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeari eta Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz, Garinoaingo Udalaren 2011ko ekitaldiko Kontu Orokorraren arauzkotasun-fiskalizazioa egin dugu.

Txostenak honako puntu hauei buruz dugun iritzia agertzea du helburua:

- Ea Garinoaingo Udalaren 2011ko ekitaldiko Kontu Orokorrak Udalaren egoeraren irudi zehatza erakusten duen alderdi nabarmen guztietan, hots, ondareari, gastu eta diru-sarreraren aurrekontuaren likidazioari eta 2011ko abenduaren 31ko finantza-egoerari dagokienez, bai eta data horretan amaituriko urteko ekitaldian eginiko eragiketen emaitzei dagokienez ere, aplikatzekoa den informazio finantzario publikoari buruzko lege-esparruari eta, bereziki, bertan jasotako kontularitza-printzipio eta irizpideei jarraituz betiere.

- Udalak 2011n izandako jarduerari aplikatzekoa zaion legediaren betetze-maila.

- Udalaren eta haren erakunde autonomoen finantza-egoera 2011ko abenduaren 31n.

Txosten honetan, Udalak ezarritako barne kontrolerako sistema, sistema administratiboa eta kontabilitate- nahiz kudeaketa-sistemak hobetzeko edota osatzeko egokitzat jo ditugun aholkuak ere gehitu ditugu.

Txosten honek Garinoaingo Udalaren 2011ko ekitaldiko kontu orokorra aztertzen du. Kontu horretan egoera-orri finantzario hauek sartzen dira, besteak beste:

- Erakundearen aurrekontu-betetzearen egoera-orria.

- Aurrekontuaren emaitza eta diruzaintzako gerakinaren egoera.

- Egoera-balantzea eta Galeren eta Irabazien Kontua.

- Kontu orokorraren eranskinak: esate baterako, zorraren egoera-orria eta kontu-hartzailetzaren txostena.

Lana gauzatu da Espainiako Estatuko Kanpo Kontrolerako Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako eta Kontuen Ganberaren fiskalizazio-eskuliburuan garatutako sektore publikoaren auditoriari buruzko printzipioei eta arauari jarraituz. Inguruabarren eta azterlanaren helburuen arabera, beharrezkotzat jo ditugun hautaprobea edo prozedura tekniko guztiak aplikatu dira; proze-

dura horien artean laginen teknika edo kontusail edo eragiketa jakin hautatuak aztertzeko teknika erabili dira.

Finantza-egoeraren 2007tik 2011era bitarteko bilakaera aztertzeko, Ganbera honek gisa horretako lanetan erabili ohi dituen magnitude, ratio eta adierazle berberak aplikatu dira.

Lan honek muga bat izan du, hala ere: ezin izan dugu iritzirik eman udal honek 2011ko ekitaldian aurrekontu-egonkortasunaren printzipioak zenbateraino bete dituen adieraziz, Nafarroako Gobernuak oraindik ere printzipio horiei Foru Komunitate honetako udaletan aplikatzeko araudi berezia eman ez duelako.

IV. IRITZIA

Gure lanaren emaitza gisa, honako iritzi hau ateratu dugu:

IV.1. KONTU OROKORRA

Ez dago inbentario bat ibilgetua osatzen duten elementuei buruzko informazioa biltzen duena. Aurrekoaz gainera, ibilgetuak balantzean duen balioa zero da.

Arestian aipaturiko salbuespenen ondorioak alde batera utzita, Udalaren 2011ko ekitaldiko Kontu Orokorrak fidelki islatzen ditu alderdirik behinenetan gastuen eta diru-sarreraren aurrekontuaren likidazioa, abenduaren 31ko ondare-egoera eta eginiko eragiketen emaitzak. Halaber, behar bezala interpretatu eta ulertzeko beharrezko informazioa biltzen du, aplikatzekoa den informazio finantzario publikoari buruzko lege-esparruari eta, bereziki, bertan jasotako kontabilitateko printzipio eta irizpideei jarraituz betiere.

IV.2. LEGEZKOTASUNA

Oro har, Udalaren jarduera ekonomiko eta finantzarioa legezkontasun-printzipioari jarraituz egin da.

IV.3. 2011ko ABENDUAREN 31ko EKONOMIA-ETA FINANTZA-EGOERA

Garinoaingo Udalak milioi bat euro baino gehixeagoko hasierako aurrekontua dauka, zeina ia bat baitator behin betiko aurrekontuarekin, zeren eta aldaketak 8.484 eurokoak baizik ez baitira.

Aitortutako betebeharrak 608.647 euro egiten dute, eta ehuneko 10 jaitsi dira 2010ekoekin alderatuta. Betebehar horien betetzearen portzentajea ehuneko 60koa da, nagusiki soilik inbertsioetan egitekoak ziren gastuen aurreikuspenen ehuneko

zazpi bete direlako. Ordainketen zenbatekoa ehuneko 96koa da.

Aitortutako eskubideek 592.903 euro egiten dute, 2010ean baino ehuneko bederatzi gutxiago. Betetzearen eta kobrantzaren portzentajeak, kasu honetan, ehuneko 59 eta 97 dira, hurrenez hurren.

Kasu honetan, betetze txikiaren arrazoi nagusia da soilik aurreikusitako kapital-transferentzien ehuneko bederatzi aitortu direla.

Gastuko 100 eurotik euro bakoitza helburu hauetarako erabili da eta honakoen bidez finantzatu da:

Gastuaren izaera	Zenbatekoa	Finantza-bidea	Zenbatekoa
Langileak	18	Tributu bidezko diru-sarrerak	43
Gastu arruntak	43	Transferentzia arruntak eta kapitalekoak	47
Inbertsioak	5	Ondare bidezko diru-sarrerak	7
Transferentzia arruntak eta kapitalekoak	29	Inbertsioak	3
Finantza-zama	5		
Guztira	100	Guztira	100

2011ko ekitaldiko aurrekontu-emaizta doituak 3.232 euroko superabita agertzen du.

2011ko diruzaintza-gerakina 30.698 eurokoa da. Diru hori guztia gastu orokorretarako erabil daiteke, zeren eta ez dago finantzabidea atxikita duen gasturik, ez eta baliabide atxikirik ere.

Udalaren 2011ko zorpetze-maila ehuneko bederatzikoa da; zorpetze-muga ehuneko 11koa da; horregatik, bada, zor berria hartzeko gaitasuna badu, ekonomiaren ikuspegitik.

Hala eta guztiz ere, Udalaren zor bizia 0,5 milioitik gorakoa da: kopuru hori erakundearen diru-sarrera arrunt guztien ehuneko 95 da; portzentaje hori gaur egun zor berriak egiteko dagoen legezko mugaren –ehuneko 75– gaineratik dago.

Ondoko taulan 2007-2011 bitarteko aldian, ekitaldi horien aurrekontu-likidazioetan Udalaren adierazle nagusiek izan zuten bilakaera erakusten da:

Adierazleak	(eurotan)					Aldea (%) 2011-2007
	2007	2008	2009	2010	2011	
Diru-sarrerak, guztira	1.104.664,82	587.948,50	1.253.410,33	652.983,36	592.903,44	% -46
Gastuak, guztira	1.190.625,50	614.761,71	1.152.721,94	674.310,09	608.647,16	% -49
Tributu bidezko diru-sarrerak	133.547,11	187.723,27	187.482,97	251.613,32	252.078,78	% 89
Diru-sarrera arruntak	397.966,47	498.764,89	560.981,52	557.179,64	541.233,59	% 36
Funtzionamendu gastuak	387.282,03	446.359,10	524.159,87	495.020,97	483.277,45	% 25
Gastu arruntak	403.144,71	473.414,44	546.179,90	513.382,34	500.488,10	% 24
Aurrezki gordina	10.684,44	52.405,79	36.821,65	62.158,67	57.956,14	% 442
Finantza-zama	314.734,15	47.431,61	536.422,53	78.739,50	48.109,78	% -85
Aurrezki garbia	-304.049,71	4.974,18	-499.600,88	-16.580,83	9.846,36	--
Aurrekontu-emaizta doituak	-85.960,68	-26.813,21	100.688,39	-21.326,73	3.232,27	--
Zorpetze-maila (%)	79,09	9,51	95,62	14,13	8,89	% -89
Zorpetze-ahalmena(%)	-76,40	1,00	-89,06	-2,98	1,82	--
Zorpetze-muga, ehunekotan	2,68	10,51	6,56	11,16	10,71	% 299
Zor bizia	534.761,41	514.006,99	604.000,00	543.621,87	512.722,74	% -4
Zor bizia/diru-sarrera arruntak	% 134	% 103	% 108	% 98	% 95	% -30
Transferentzia arruntekiko mendekotasuna (%)	57,13	51,75	57,62	47,59	44,65	% -22
Inbertsio garbia	486.599,31	120.971,00	85.368,77	100.549,62	13.097,94	% -97
Birfinantzatutako maileguak ⁽¹⁾	530.000,00	0,00	604.000,00	0,00	0,00	--
Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina	59.762,59	34.121,20	66.510,65	45.483,71	30.697,59	% -49

(1) Mailegu hauek, egiazki, ez dira berriak, lehengoak birfinantzatzekoak baizik.

2007-2011 bitarteari dagokion aurreko informazio horretatik, alderdi hauek azpimarratu nahi ditugu:

- Guztizko gastuek eta diru-sarrerek ehuneko 49 eta 46 egin dute behera, hurrenez hurren. 2007an, mailegu bat birfinantzatu zen. Horrek esan nahi du diru-sarrerak eta gastuak nabarmen baldintzatuta daudela 278.764 euroko zor bat aurrez amortizatu delako eta 530.000 euroko beste zor bat hartu delako.

Maileguen birfinantzatzeak ukitutako balorazio hori berriz ere gertatu zen 2009an, zeren eta orduan aurrez amortizatu baitzen 489.197 euroko mailegu bat, eta, aldi berean, 604.000 euroko beste zor bat itundu baitzen. Horrek eraginak dauzka, 2007an bezala, 2009ko guztizko gastu eta diru-sarreretan, bai eta urte horretako zorpetzearekin lotutako adierazleetan ere.

- Aztertutako aldiaren diru-sarreraren eta gastuen gutxitzearen arrazoi nagusietako bat da, aurreko guztiaz gainera, ez direla egin aurreikusitako inbertsio errealak, eta ez direla jaso 2011ko aurrekontuetan bildutako kapital-transferentziak.

- Tributu bidezko diru-sarrerek eta diru-sarrera arruntek ehuneko 89 eta 36 egin dute gora, hurrenez hurren. Tributu bidezko diru-sarreraren igoeraren arrazoietakoa bat da 2011n haur eskolaren tasak diru-sarreraren 3. kapituluaren sartu direla; 2007an, izan ere, oker kontabilizatuta zeuden. Erregistroakats hori zuzendu zen Orbaibarko Administrazio Zerbitzuen Batasuna lanean hasi zen unetik. Urte hartan, zerbitzu honen gastu eta diru-sarreretatik asko kontabilizatu beharrean, bi kopuru horien arteko zenbateko garbia erregistratzen zen.

- Funtzionamendu gastuek eta gastu arruntek ehuneko 25 eta 24 egin dute gora, hurrenez hurren.

- Zor biziak 0,5 milioi euroko zenbatekotik goraxeago dago, eta aztertutako aldiaren antzeko mailatan mantentzen da. Adierazle horrek diru-sarrera arruntan gainean egiten duen portzentajeak ehuneko 30 behera egin duen arren, haren balioa ehuneko 95era iristen da 2011n. Kopuru hori, izan ere, gaur egun zorpetze berri hartzeko baimena ematen duen legezko portzentajetik (ehuneko 75) gora dago.

- Finantza-zamak ehuneko 85 egin du behera, baina aldaketa hori 2007an egin zen birfinantzatzeak baldintzatuta dago.

- Zorpetze-mailak ehuneko 89 egin du behera, baina aldaketa hori ere 2007an eginiko birfinantzatze-eragiketarik baldintzatuta dago.

- Aurrekontu-emaizta doituak hobera egin du aztertutako aldiaren. 2011n, izan ere, 3.232 euro positiboa da; 2007an, aldiz, 85.960 euro negatiboa izan zen.

- Diruzaintza-gerakina balio positibotan mantentzen da aztertutako aldiaren; halere, 2011n ehuneko 49 egin du behera 2007koarekin alderatzen badugu.

Laburbilduz, Garinoango Udalak 2011n, 2007arekin alderatuta, nolabaiteko hobekuntza bat ageri duen arren, txosten honen VI.6 atalean adierazitako finantza-zamari aurre egin beharrean aurkituko da. Erakunde horrek oso kontuan eduki behar du, orobat, ezin duela zorpetzeaz baliatu, gaur egun bide horretatik baliabideak eskuratzeko dagoen portzentajea gaituztea.

Aurreko guztiari gehituz gero txosten honen VI.10 atalean azaldutako balizko gorabeherak eta gauden krisi ekonomikoko egungo inguruabarrak, gure iritziz Udalak ahaleginak zentratu beharko ditu baliabide arruntak sortzean, gastu arruntei eusteko edo/eta gastu horiek gutxitzean eta soilik zorrozki beharrezkoak diren inbertsioak egitean, behar diren finantzabideekin eta bideragarritasunarekin.

Fiskalizazioaren iritzia ezertan ukitu gabe, Kontuen Ganbera honek argi utzi nahi du zer arrisku-egoera eragiten duen gaur egungo krisi ekonomikoko egoerak, finantzaketari dagozkion zer ondorio izan ditzakeen Udalaren kontu publikoetan. eta aurrekontuetarako zer eskakizun dituen aurrekontuen egonkortasunerako araudiak. Testuinguru honetan, aurrekontuen plangintzan eta exekuzioan zorrotz jokatzeko eta funts publikoen erabileran gardentasuna izateak herritarren funtsezko beharrekin bat datorren kudeaketa publiko baten oinarritzko baldintza izan behar dute.

Azkenik, udal honetan eta Nafarroako tokiko sektore publiko osoan eragina duen alderdi orokor bat denez, lehentasun handikoa eta urgentziazkoa iruditzen zaigu Nafarroako Gobernuak Aurrekontuen Egonkortasunari eta Finantzen Egonkortasunari buruzko Lege Organikoan jasota dauden aurrekontuen egonkortasun-printzipioak foru erkidego honetako toki-erakundeetan aplikatzeko araudia egokitzea eta garatzea, haien aurrekontuetan eta, horrenbestez, haien finantza-egoeran izan ditzakeen ondorio eta inplikazio praktikoak kontuan hartuta.

V. KONTU OROKORRAREN LABURPENA

Ondoren, Udalaren 2011ko Kontu Orokorrak jasotzen dituen finantzen egoera-orrien laburpen bat ematen dugu.

V.1. AURREKONTU-BETETZEAREN EGOERA-ORRIA

Diru-sarrerak kapituluz kapituluz

Deskribapena	Hasierako aurreikuspena	Aldaketak	Behin betiko aurreikuspena	Aitortutako eskubideak	Betetakoa (%)	Kobrantzak	Kobrantzak (%)	Kobratzeke dagoena
1. Zuzeneko zergak	91.100,00	--	91.100,00	89.212,60	97,93	83.385,16	93,47	5.827,44
2. Zeharkako zergak	11.000,00	--	11.000,00	5.042,27	45,84	4.624,16	91,71	418,11
3. Tasak eta bestelako diru-sarrerak	159.100,00	--	159.100,00	157.823,91	99,20	156.035,81	98,87	1.788,10
4. Transferentzia arruntak	249.350,00	1.350,00	250.700,00	241.662,40	96,40	230.187,36	95,25	11.475,04
5. Ondare bidezko diru-sarrerak	47.900,00	--	47.900,00	47.492,41	99,15	47.492,41	100,00	0,00
6. Inbertsio errealak besterentzea	15.236,00	--	15.236,00	15.236,00	100,00	15.236,00	100,00	0,00
7. Kapital transferentziak	418.696,00	--	418.696,00	36.433,85	8,70	36.433,85	100,00	0,00
8. Finantza-aktiboak	0,00	18.996,77	18.996,77	0,00	0,00	0,00	--	0,00
9. Finantza-pasiboen aldaketa	11.863,00	-11.863,00	0,00	0,00	--	0,00	--	0,00
Guztira	1.004.245,00	8.483,77	1.012.728,77	592.903,44	58,55	573.394,75	96,71	19.508,69

Gastuak kapituluz kapituluz

Deskribapena	Hasierako aurreikuspena	Aldaketak	Behin betiko aurreikuspena	Aitortutako betebeharrak	Betetakoa (%)	Ordainketak	Ordainketak (%)	Ordaintzeke
1. Langile-gastuak	117.975,00	1.350,00	119.325,00	112.201,77	94,03	109.878,31	97,93	2.323,46
2. Ondasun arruntak eta zerbitzuen gastuak	241.300,00	8.045,00	249.345,00	241.582,90	96,89	235.226,34	97,37	6.356,56
3. Gastu finantzarioak	20.900,00	0,00	20.900,00	17.210,65	82,35	17.210,65	100,00	0,00
4. Transferentzia arruntak	128.620,00	1.975,00	130.595,00	129.492,78	99,16	129.492,77	100,00	0,01
6. Inbertsio errealak	412.500,00	0,00	412.500,00	28.333,94	6,87	28.333,94	100,00	0,00
7. Kapital-transf.	15.950,00	32.996,77	48.946,77	48.925,99	99,96	30.929,22	63,22	17.996,77
9. Finantza-pasiboak	67.000,00	-35.883,00	31.117,00	30.899,13	99,30	30.899,13	100,00	0,00
Guztira	1.004.245,00	8.483,77	1.012.728,77	608.647,16	60,10	581.970,36	95,62	26.676,80

V.2. AURREKONTU-BETETZEAREN EGOERA-ORRIA

<i>Kontzeptua</i>	<i>2011ko ekitaldia</i>	<i>2010eko ekitaldia</i>
<i>Aitortutako eskubide garbiak</i>	592.903,44	652.983,36
<i>Aitortutako betebeharrak garbiak</i>	608.647,16	674.310,09
<i>Aurrekontu-emaiza</i>	-15.743,72	-21.326,73
<i>Doitzeak</i>		
<i>Finantzaketaren desbideratze positiboa G.F.A.</i>	-	-
<i>Finantzaketaren desbideratze negatiboa G.F.A.</i>	-	-
<i>Finantzaketaren desbideratze positiboa R.A.:</i>	-	-
<i>Diruzaintza-gerakinarekin finantzaturiko gastuak</i>	18.975,99	-
<i>Aurrekontu-emaiza doituak</i>	3.232,27	-21.326,73

V.3. DIRUZAINZTA-GERAKINAREN EGOERA-ORRIA 2011ko ABENDUAREN 31n

Kontzeptua	2011ko ekitaldia	2010eko ekitaldia
+ Kobratzeko dauden eskubideak	22.621,63	27.990,42
+ Diru-sarreraren aurrekontua: Aurtengo ekitaldia	19.508,69	24.184,17
+ Diru-sarreraren aurrekontua: Itxitako ekitaldia	23.153,92	26.463,35
+ Ordainketen itzulketak	-	-
+ Aurrekontuz kanpoko diru-sarrerak:	110,07	2,27
- Bilketa zaileko eskubideak	-20.151,05	-22.659,37
- Aplikatzeke dauden diru-sarrerak	-	-
(-) Ordaintzeko dauden betebeharrak	28.482,27	50.625,59
+ Gastuen aurrekontua: Aurtengo ekitaldia	26.676,80	24.625,52
+ Gastuen aurrekontua: Itxitako ekitaldia	-	55,68
+ Diru-sarreraren itzulketa	-	-
- Aplikatzeke dauden gastuak	-	-
+ Aurrekontuz kanpoko gastuak	1.805,47	25.944,39
+ Diruzaintzako funts likidoak	36.558,23	68.118,88
+ Finantziarioko desbideratze metatu negatiboak	-	-
= Diruzaintza-gerakina, guztira	30.697,59	45.483,71
Diruzaintza-gerakina, finantzaketa atxikia duten gastuak direla-eta	-	-
Baliabide atxikiaren diruzaintza-gerakina	-	-
Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina	30.697,59	45.483,71

AKTIBOA

Deskribapena	2011	2010
Ibilgetua	-	-
Zirkulatzaila	79.330,91	118.768,67
Itxitako aurrekontuetako eta aurrekontuez kanpoko zordunak		
7 zordunak	23.263,99	26.465,62
8 Aurrekontuko zordunak	19.508,69	24.184,17
9 Finantza-kontuak	36.558,23	68.118,88
Aktiboa, guztira	79.330,91	118.768,67

PASIBOA

Deskribapena	2011	2010
Funts berekiak	-461.874,10	-499.478,79
1 Ondarea eta erreserbak	-452.143,05	-539.361,28
3 Ekitaldiko emaitza ekonomikoa	-9.731,05	39.882,49
Epe luzeko hartzekodunak	512.722,74	567.621,87
Prestamenak, maileguak eta fidantzak eta jasotako gordailuak		
4 gordailuak	512.722,74	567.621,87
Epe laburreko hartzekodunak	28.482,27	50.625,59
Itxitako aurrekontuetako hartzekodunak eta aurrekontuez kanpokoak		
5 aurrekontuez kanpokoak	1.805,47	26.000,07
6--Aurrekontuko hartzekodunak	26.676,80	24.625,52
Pasiboa, guztira	79.330,91	118.768,67

V.5. GALERA ETA IRABAZIEN KONTUA 2011ko ABENDUAREN 31n

Deskribapena	2011	2010	Deskribapena	2011	2010
61 Langile-gastuak	112.201,77	122.005,99	70 Salmentak	57.823,91	154.277,11
62 Gastu finantzarioak	17.210,65	18.361,37	71 Ondasunaren eta enpresaren errenta	47.492,41	40.395,41
64 Lanak, hornidurak eta kanpo zerbitzuak	241.582,90	247.276,27	72 Produkzioari eta inportazioari loturiko tributuak	63.855,60	69.773,25
67 Transferentzia arruntak	129.492,78	125.738,71	73 Errentaren eta ondarearen gaineko zerga arruntak	27.383,70	27.562,96
68 Kapital-transferentziak	48.925,99	--	76 Transferentzia arruntak	41.662,40	265.170,91
			77 Kapitalaren gaineko zergak	3.015,57	--
D80 Ekitaldiaren emaitza korrante negatiboa	8.480,50	--	H80 Ekitaldiaren emaitza korrantea	--	43.797,30
D84 Bajak eta itxitako aurrekontuen deuseztapenak	1.606,23	3.914,81	H84 Altak eta preskripzioak, itxitako aurrekontuak	55,68	--
D89 Ekitaldiko ekonomia-emaitza negatiboa	9.731,05		H89 Ekitaldiko emaitza ekonomikoa		39.882,49

VI. IRUZKINAK, ONDORIOZTAPENAK ETA AHOLKUAK

Ondoren, kudeaketa arlo garrantzitsuenetako bakoitzerako, Udalaren antolaketa-sistemak, prozedurak, kontabilitatea eta barne-kontrola hobetzeko, gure iritzian Udalak bere egin behar dituen ondorio eta aholku nagusiak azalduko ditugu.

VI.1. ALDERDI OROKORRAK

2011ko ekitaldiko aurrekontua 2011ko apirilko Osoko Bilkuran onetsi zen.

Ez dago inbentariarik, Udalaren ibilgetuko elementuak osatzen dituzten ondasunak jasotzen dituenik.

2009an, Orbaibarko Administrazio Zerbitzuen Batasuna hasi zen lanean, eta haren langileak Udalean sartu ziren (idazkaria, administraria eta kontabilitateko arduraduna). Data horretara arteko

dokumentazioaren artxiboak ez du ordenarik, eta horrek zaildu egiten dut informazioa bilatzea. Hala ere, alderdi hori hobetzeko lan egiten ari da.

Gure gomendioak:

- *Indarrean dagoen araudiak ezartzen dituen epeen barruan onartzea urteko aurrekontua.*

- *Inbentario bat egitea eta bertan Udalaren ondasun eta eskubide guztiak sartzera, eta sortzen den informazio hori kontabilitatearekin lotzea.*

- *2009a baino lehenagoko dokumentazioaren artxiboa hobetzeko prozesua amaitzea.*

VI.2. LANGILE-GASTUAK

Langileen kapituluari aitortutako betebeharrak 112.201 eurokoak dira, 2010ean baino ehuneko zortzi gutxiago; alegia, 2011ko ekitaldian sortutako gastu guztien ehuneko 18. Hona kontuak banakaturata (eurotan), 2010ekoekin alderatuta:

Kontzeptua	2010	2011	2011/2010 aldaketa (%)
Goi-karguak	610	610	-
Lan-kontratu finkoa	-	1546	-
Aldi baterako lan-kontratua	18.288	61.034	234
Bestelako langileak	64.349	12.762	-80
Kuotak, prestazioak eta gizarte-gastuak	38.759	36.249	-6
Guztira	122.006	112.201	-8

Kontzeptuen arteko zenbatekoetan gertatzen den parekotasun ezaren arrazoia da langile berak kontusail desberdinetan sailkatuta daudela.

Udalaren plantilla organikoa 2011ko maiatzean onetsi eta argitaratu zen, eta bi atal dauzka:

- Lehenengoak erreferentzia egiten die Orbaibarko Administrazio Zerbitzuen Batasuneko gainetako Udalekin partekatutako lanpostuei (idazkaria, administrari ofiziala eta administrari laguntzailea).

- Bigarrenak Udalaren langile berekiak hartzen ditu: lanaldi erdiko lan-kontratu finkoa duen zerbitzu anitzetako langile bat eta musika eskolako bederatzi irakasle, lanaldi partzialeko kontratu mugagabeak dituztenak, jarduerarik gabeko aldiekin.

2011ko abenduaren 31n, 10 pertsonak egiten dute lan Udalean, eta guztiek lan-kontratua daukate. Horietatik bederatzi musika irakasleak dira eta bat zerbitzu anitzetako langilea.

Udalak arau indardunetan ezarritako hautapen-prozedurak jarraitu gabe hautatzen ditu musikako irakasleak. Hau da, ez du lehiaketa publikorik egi-

ten eta ez du erabiltzen merezimendu- eta gaitasun-printzipioetan oinarritutako hautapen-probarik. Kontratu horiek pixkanaka joan dira egiten, musika eskola 1999an lanean hasi zenetik, eta urtero berritzen dira. Horri dagokionez, idazkari kontuhartzailearen eragozpen-ohar bat badago, 2010ean lanpostu horretan hasi zen unetik jarria.

Musika irakasleek 2009an hitzarmen bat sinatu zuten Udalarekin. Hitzarmen horrek 2010eko urria arteko eraginak izan zituen, eta urtero berritzekoa zen, alde sinatzaileek hura amaiarazteko eskatzen ez zuten bitartean. Hitzarmen horretan zehazten da lansariak urte bakoitzeko urriko KPlaren arabera gaurkotuko direla.

Egiaztatu da Udalak musika irakasle horiei ez ziela ekainaren 11ko 12/2010 Foru Legea aplikatu, Defizit publikoa murrizteko neurri bereziak Nafarroako Foru Komunitaterako moldatzen dituen; izan ere, lege hori aplikatzeak berarekin zekarren irakasleen lansariak, batez beste, ehuneko bost gutxitzea. Aitzitik, 2010eko urrian, lansariak 2009ko KPlari dagokion ehuneko 0,5a handitu ziren.

Ez zitzaien aplikatu, ezta ere, 2011rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Legean aurreikusitako lansarien izoztea; aitzitik, lansariak 2010eko KPlaren arabera handitu ziren, ehuneko 2,8 hain zuzen.

Horri dagokionez, Udalak alkatetzaren erabaki bat onetsi du, zeinaren bidez Udalak datozen nominetan berreskuratuko baitu musika irakasleek jaso behar ez zuten diru-zenbatekoa.

Gure gomendioak:

- *Udalaren plantilla organikoa indarrean dagoen araudiak agintzen dituen epeen barruan onartzea eta argitaratzea.*

- *Langileak kontratatzeke indarrean dagoen araudia betetzea, eta horretan merezimendu, gaitasun, lehia aske eta publizitate printzipioak betetzea.*

- *Aldi baterako lan-kontratudun langileen nominetan ordainsarien zuzenketa zorrotz aplikatzea.*

VI.3. GASTUAK, ONDASUN ARRUNTETAN ETA ZERBITZUETAN

Gastu arrunten eta zerbitzuen gastuak 241.582 milioi eurokoak izan dira 2011n, eta haien ehuneko 97 bete da. Hona gastu horien xehekako azalpena:

	(eurotan)
Kontzeptua	Zenbatekoa
Konponketak, mantentze-lana eta kontserbazioa	19.552
Materiala, hornidurak eta beste	197.895
Zerbitzuaren ondoriozko kalte-ordainak	24.135
Guztira	241.582

Gastu hau ekitaldi honetan aitortutako gastu guztien ehuneko 40 da, eta ehuneko bi beheratu da 2010ekoaren aldean.

Kapitulu honetan erregistratutako gastuen lagin bat aztertu dugu, haren ehuneko 84ari dagokiona, eta egiaztatu dugu behar diren fakturekin justifikatuta daudela, zuzen kontabilizatu direla eta aplikatzekeoa den araudia aplikatu dela. Halere, hurrengo akatsa ikusi dugu:

- Haur eskolaren kudeaketa 2006an adjudikatu zitzaion enpresa bati zazpi hilabetetarako (2007ko uztailaren 31ra arte), sei urtez luzatzen joateko aukerarekin (2012ko uztailaren 31ra arte).

Kontratuan zehazten zen, enpresak 62.650 euro (BEZa barne) jasoko zituela, hileko ordainketatan ordaindua, eta adjudikazio-hartzaileak zerbi-

tzua ematearen arriskua eta zortea hartuko zituela bere gain. Ezartzen da, gainera, kopuru hori urtez urte gaurkotzen joanen zela, Nafarroako Gobernuak zerbitzu hori diruz laguntzeko finkatutako moduluen arabera, eta aldatu eginen zela behar ziren baliabideen arabera.

Ez dago jasota zerbitzua kudeatzen duen enpresari ordaintzen zaion prezioa gaurkotu denik, baina ordaintzen zaion kopurua handitzen joan da urtero, erabiltzaileen kopurua handitzearekin batera enpresak baliabide gehiago behar izan baititu. 2012ko ekainera arte, honakoa izanda kudeaketa-prozedura: haur eskolak bere gastu guztiak (nominak barne) Udalaren kontu korrante batean kargatzen ditu, eta kontu horretan bertan sartzen ditu erabiltzaileengandik jasotzen dituen tasak. Udalak, informazio horrekin, zerbitzu emateari dagozkion diru-sarrerak eta gastuak kontabilizatzen ditu, haietan barne kontroleko inongo prozedurarik aplikatu gabe, idazkaritzak ohartarazitakoak gorabehera. Bilera batzuk izaten ziren udalbatzako kide baten eta haur eskolako zuzendariaren artean, baina bilera horietan ere ez ziren kontrastatzen gastuei eta diru-sarrerei buruz jakinarazitako datuak.

Egiaztatu dugu 2011n kontabilizatutako gastuak eta Nafarroako Gobernuak 2010-2011 eta 2011-2012 ikasturteetarako zituen moduluetan ezarritakoak ez zirela oso desberdinak.

2012ko abuztuan, prozedura murriztuaren bidez, enpresa berari adjudikatu zitzaion eskolaren kudeaketa, 116.108 eurotan kalkulatu zen zenbateko batengatik. Zenbateko hori ikasturte bakoitzean doituko da urteko matrikulazioaren arabera eta Udalak eta Hezkuntza Departamentuak izenpetutako hitzarmenaren arabera. Kontratu hau arautzen duten orrietan zehazten da zenbateko hori hileko ordainketatan ordainduko zaiola enpresari.

Gure gomendioak:

- *Zerbitzuen kudeaketa arautzeko kontratuetan, kontratazioari buruzko araudia betetzea.*

- *Haur eskola kudeatuko duen enpresari berriki adjudikatu zaion kontratuaren diru-baldintzak betetzea.*

VI.4. INBERTSIOAK

2011n inbertsioetan eginiko gastuak 28.334 eurokoak dira. Betetze-portzentaje hori oso txikia da, eta behin betiko aurreikuspenen ehuneko zazpiari baizik ez dagokio. Ehuneko 72 jaitsi da aurreko urtekoarekin alderatuta.

Eginiko inbertsioak ondoko taulan adierazten direnak dira:

Inbertsioa	Behin betiko aurrekontua, 2011	2011n betetako zenbatekoa
Zolaberritzea eta sareak	390.200	9.888
Udaletxea zaharberitzea	18.000	16.520
Zerbitzuen funtzionamenduari loturiko inbertsioak	4.300	1.926
Guztira	412.500	28.334

Zolaberritzean eta sareetan betetako gastua bat dator zolaberritzearen atalari dagokion proiektuan ezarritakoarekin. Aurrekontuko gainerako gastua zolaberritze lanak betetzeari zegokion. Obra hauen finantziakoa Nafarroako Gobernutik dator eta, zati batean, Udalaren eskutik, kontribuzio berezien bitartez eta diruzaintza-gerakinaren bitartez. Aurrekoaz gainera, obren exekuzioa Mairagako Mankomunitateak saretarako obrak egitearen menpe dago. Hala eta guztiz ere, egungo egoera ekonomikoa ikusita, Nafarroako Gobernuaren dirulaguntzak geraturik daude eta Mankomunitateak ez du diru-funtsik.

Gastu guztiak aztertu dira eta ondoriozta daiteke kasuko fakturekin justifikatuta daudela, haietan indarreko araudia aplikatu dela eta zuzen kontabilizatu direla.

VI.5. TRANSFERENTZIEN ONDORIOZKO GASTUAK

Transferentzia guztien ehuneko 73 arruntak dira; 178.419 euro izan dira 2011n, eta ehuneko 99ko betetze-maila izan dute. 2011ko gastu guztien ehuneko 29 egiten dute eta ehuneko 42 egin dute gora 2010ekoen aldean. Horren arrazoia da kapital-transferentzien zenbatekoa 48.926 eurokoa dela 2011n eta 2010ean, aldiz, ez zegoela inongo gasturik kapitulu horretan, hain zuzen ere Orbaibarko Administrazio Zerbitzuen Batasunaren egoitza eraikitzeko.

Hauek izan dira transferentzia arrunt horien hartzaileak, banan-banan bereizita:

Deskribapena	Zenbatekoa, 2011
Mankomunitateak.	43.195
Orbaibarko Administrazio Zerbitzuen Batasuna	64.016
Familientzako diru-laguntza	7.323
Irabazi-asmorik gabeko erakundeentzako diru-laguntza	4.788
Partzuergoentzako transferentziak	6.638
Beste transferentzia batzuk	3.533
Guztira	129.493

Transferentzien ondoriozko gastuen ehuneko 87 hartzen duen lagin bat aztertuta, ondorioztatzen da ezen orokorrean, egokiak direla gastu horien izapidetzea eta kontabilizetzea. Hala eta guztiz ere, honako akatsak ikusi dira:

- 1995etik hitzarmen bat dago, zeinaren bitartez izaera pribatua duen Murugain Sozietateak Udalaren ondasun batzuen doako lagapena baitu; izan ere, Udalaren kirol instalazioak kudeatzen ditu zerbitzu publikoen kudeaketarako behar den kontratua formalizatu gabe.

Hitzarmenaren laugarren klausulan ezartzen da Udalak diru-sarreraren 3. kapituluaren kontabilizatu dituela Sozietateak instalazio horien erabilerearengatik jasotzen dituen diru-sarrerak, eta aldi berean, transferentzien 4. kapituluaren zenbateko bera duen gastu bat kontabilizatu duela, nahiz eta egiazki funtsen egiazko mugimendurik ez egon. 2008tik aurrera, ezartzen da zenbateko hori finkoa izanen dela, 30.000 eurokoa. Zenbateko hori gastu gisa ageri da aurreko taulako mankomunitateen kontusailan, sozietatearen diru-sarrerak zein diren ere, eta horrelaxe egiten joan da, nahiz eta idazkari kontu-hartzaileak egoera hori eragozpen oharretan nabarmendu izan duen 2010ean lanpostu horretan hasi zenetik.

Egoerak berarekin ekarri du aurrekontua zenbateko horren arabera gainbaloraturik egotea, nahiz eta horrek ez duen eraginik aurrekontu-emaizaren kalkuluan. Hala eta guztiz ere, egoerak eragina luke beste adierazle batzuen kalkuluan; esate baterako, diru-sarrera arruntaren gaineko zor biziaren ratioarenean. Akats hori, Udaletik jakinarazi digutenaren arabera, 2012ko aurrekontu-betetzeari zuzenduko da.

2006an, beste hitzarmen bat egin zen, 1995ekoaren oso antzekoa. Hirugarren klausulan, ordea, gehitzen du kirol instalazioen kudeaketa 25 urteko epean amaituko dela.

Gure gomendioak:

- Ez egozte aurrekontuari kirol instalazioen kudeaketatik heldu diren diru-sarrera eta gastu arruntak.

• *Hitzarmena zerbitzu publikoak lagatzeko kasuko kontratura birbideratzea, bi aldeen eskubi-deak eta betebeharrak indarreko araudiaren arabera finkatuz.*

VI.6. FINANTZA-ZAMA

Aurrekontuaren 3. eta 9. kapituluak baturik, 48.100 euro egiten dute: gastu guztien ehuneko

zortzi, hain zuzen. Gastu horiek ehuneko 39 jaitsi dira 2010ekoan aldean.

Egindako azterketatik ondorioztatzen da gastuen izapidetzea eta kontabilizatzea ongi egina izan dela.

Informazio gisa, Udalaren zorraren 2029ra arteko amortizazio-taula proposatzen dugu ondoren, eurotan, indarrean dagoen mailegu bakarrari dagokionez.

<i>Urtea</i>	<i>Interesak</i>	<i>Amortizazioa</i>	<i>Urteko kuota</i>	<i>Abenduaren 31n ordaintzeko dagoen kapitala</i>
2012	14.383	22.140	36.522	490.583
2013	13.256	22.969	36.224	467.614
2014	12.617	23.607	36.224	444.007
2015	11.961	24.263	36.224	419.744
2016	11.287	24.937	36.224	394.807
2017	10.594	25.630	36.224	369.177
2018	9.882	26.342	36.224	342.835
2019	9.150	27.074	36.224	315.761
2020	8.398	27.826	36.224	287.935
2021	7.625	28.599	36.224	259.336
2022	6.830	29.394	36.224	229.942
2023	6.014	30.211	36.224	199.731
2024	5.174	31.050	36.224	168.681
2025	4.311	31.913	36.224	136.768
2026	3.425	32.800	36.224	103.968
2027	2.513	33.711	36.224	70.257
2028	1.577	34.648	36.224	35.610
2029	614	35.610	36.224	0

Horri dagokionez, esan beharra dago kalkulatuak amortizazio plana dela hau, eta aldatu egin daitekeela kontratatutako interes-tasaren bilakae-raren arabera, sei hilez behin berritzen baita.

VI.7. TRIBUTU BIDEZKO DIRU-SARRERAK

Tributu bidezko diru-sarrerak direla-eta 2011n aitortutako eskubideak 252.079 eurokoak dira, eta Udalaren guztizko diru-sareren ehuneko 43 egiten dute. Hartara, 2010eko antzeko mailetan dago. Betetze- eta kobratze-maila ehuneko 97koa da. Diru-sarrera hauek honela banatzen dira kapituluz kapitulu:

Kontzeptua	Aitortutako eskubideak (2011)	Aitortutako eskubideak (2010)	2012/2011 aldea (%)
Zuzeneko zergak	89.213	86.362	3
Zeharkako zergak	5.042	10.975	-54
Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk	157.824	154.277	2
Guztira	252.079	251.614	0,18

Honakoa da zerga-figura nagusien bilakaera:

Kontzeptua	Aitortutako eskubideak (2011)	Aitortutako eskubideak (2010)	2012/2011 aldea (%)
Lurraldeko kontribuzioa	52.851	52.224	1
Ibilgailuak	27.384	27.563	-0,6
Lursailen balioa handitzea	3.016	0	-
JEZ	5.962	6.575	-9
EIOZa	5.042	10.975	-54
Guztira	94.255	97.337	-3

Ikus daitekeen bezala, zuzeneko zergek joera egonkorra dute; EIOZak, aldiz, kontrako joera dauka, behera egiten baitu, nahiz eta zenbatekoa oso garrantzitsua ez izan.

Udalak aplikatutako tasak Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legeak jasotzen duen sortako tarte ertain-altuan kokatzen dira, ondoko taula honetan ikus daitekeen bezala:

Tributua	Udala	2/1995 Foru Legea
Hirilurraren gaineko kontribuzioa	0,199	0,10 - 0,50
Landa-lurraren gaineko kontribuzioa	0,8	
Jarduera Ekonomikoen Gaineko Zerga	1,32	1 - 1,4
Lursailen balioa handitzea:		
Gaurkotzearen koefizientea	2,7tik 3ra	2tik 3,8ra
Karga-tasa	15	8 - 20
Eraikuntza, instalazioa eta obrak	4	2 - 5

Udalak hiri-lurren kontribuzioari eta landa-lurren kontribuzioari aplikatzen aplikatzekoak zaizkien tasak bereizten jarraitzen du; ez da egokitu 2006az gero indarrean dagoen Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legeko 139 artikulua ezarritako tasa bakarrari, zeinak ehuneko 0,1 eta 0,5 bitartekoa izan behar baitu. Halere, Udalak 2013an zuzenduko du akats hori.

Partida hauen lagin baten gainean egindako azterketatik gastuen izapidetzea eta kontabiliza-

tzea ongi eginga izan dela ondorioztatzen da.

Gomendatzen dugu lurralde kontribuzioaren tasak egokitzea araudi indardunari, ahal den bezain laster.

VI.8. BESTELAKO DIRU-SARRERAK

Diru-sarrera hauek, osorik hartuta, 340.825 eurokoak dira; ehuneko 47ko betetze-maila izan dute, eta ondoko taulan adierazten dira kopuruak eta horien bilakaera:

Kontzeptua	Aitortutako eskubideak (2011)	Aitortutako eskubideak (2010)	2012/2011 aldea (%)
Transferentzia arruntak	241.662	265.171	-9
Ondare bidezko diru-sarrerak	47.492	40.395	18
Inbertsio erreala besterentzea	15.236	-	-
Kapital-transferentziak	36.434	95.804	-62
Guztira	340.824	401.370	-15

Tributuz besteko diru-sarrerak ehuneko 15 egin dute behera 2010ekoekin alderatuta, funtsean jasotako kapital-transferentziek behera egitearen eraginez.

Kontusailen lagin baten gainean azterketa egin ondoren, oro har, egoki izapidetu eta kontabilizatu direla egiaztatu dugu. Hala eta guztiz ere honako akatsak antzeman ditugu:

- Herri-ondasunen aprobetxamendua 1991n Udalaren osoko bilkurak onetsitako azken ordenantzaren eta usadio edo ohituraren arabera araututa dago. Ondasunen azken adjudikazioa 2002an izan zen, eta 2012an amaitzen zen arren, urtebetez luzatu da.

- Egiaztatu da Garinoango musika eskolara joaten diren biztanleen jatorriko udalek ez dutela hartarako diru-ekarpenik egiten. Horrenbestez, "kanpoko" erabiltzaileek, zeinak 2011-2012 ikasturtean musika eskolako ikasleen ehuneko 60 baitziren, ez dute diru-ekarpenik egiten zerbitzu horren prestazioak dakarren defizita estaltzeko.

Gure gomendioak:

- Ordenantza bat egitea herri-ondasunen egungo inguruabarrei eta baldintzei egokitu zaiena, zeren eta gaur dagoena zaharkiturik baitago, eta beste adjudikazio bat egitea hari jarraituta.

- Kalkulatzeko musika eskolaren defizitaren zein zati bete beharko luketen Garinoangoak ez diren erabiltzaileek eta kasuko Udalak kopuru hori ordain dezan negoziatzea, toki entitate horien ekarpenak finkatzen dituen hitzarmen bat eginez, haur eskolarekin egiten den bezala.

- Aurreko hitzarmen horiek egiten ez badira, musika eskolaren prezioak zerbitzuaren kostuaren arabera egokitzea.

VI.9. HIRIGINTZA

Udalaren hirigintza-kudeaketa Tafallako Etxebizitzak Zaharberritzeko Bulegoak ematen duen kanpoko aholkularitzarekin egiten da. 2011n, 307 euro ordaindu zitzaizkion urteko kuota gisa, eta beste 1.452 euro Udalarentzat eginiko txostenen truke.

Garinoango Udal Plan Orokorra, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legeari egokitu, 2010eko uztailaren argitaratu zen hasiera batez, baina txosten hau idazteko garaian ez zaio behin betiko onespenerik eman. Hori dela eta, hirigintza-araudia 1990ean onetsitako arau subsidiarioak dira, nahiz eta agiri hori zaharkiturik dagoen eta aurreko hirigintza-legediaren arabera izan.

Udalak ez du lurzorua udal ondarearen erregistroa eratu.

Gure gomendioak:

- Udal plan orokorra behin betiko onetsi eta argitaratzea, ahal den bezain laster.

- Lurzorua Udal Ondarea Udalaren gaineko ondasunetatik bereizirik eratzeko eta kudeatzea, sarrerak eta irteerak, bai lursaileri bai eskudiaruari dagozkienak, erregistratuz, eta haiek indarrean den araudian ezarritako xedeetarako erabiltzea.

Obrarako proiektuan ez ziren sartu obra-zuzendaritzaren lansariak, zeren eta ulertu baitzen jarduketa oso errazak zirela, inongo jarraipenik behar ez zutenak.

2010eko martxoan, Herri Lan Departamentuak Udalera jo zuen, eta eskatu zion baimena eska ezala obra horiek egiteko, sozietate batek haiek zirela-eta salaketa aurkeztua baitzuen.

2010eko apirilean, Udalak Herri Lan Departamentuari erantzun zion esanez bere garaian kasuko baimen-eskaria egin zela, baina ez daukatela horren egiaztagiririk, udal artxiboan dagoen desordena dela eta. Halaber, eskatzen dute obra egiteko luzapen bat baimentzeko, zeren eta hitzarmena betetzeko epea 2008ko urtarrilean amaitu baitzen. Besteak beste, proiektuaren oroitidazkia aurkeztu zuten.

2010eko ekainean, behar ziren egiaztapenak egin ondoren, Herri Lan Departamentuak txosten bat igorri zion Udalari, non zehazten baititu obra egiterakoan eginiko ez-betetze tekniko batzuk. Ez-betetze horiek direla-eta, mendi-mazelan autopista alderanzko luiziak gerta daitezke. Egitate hori zehapen-arrazoia izan daitekeen arren, Udalari eskatzen zaio enpresaren teknikariren baten txosten bat aurkezteko, lubetaren segurtasunari buruzkoa, eta txosten horretan definitzeko balizko

zuzenketa-ekintzak; izan ere, horixe izanen da obren exekuzioan luzapen-baimena izapidetzea bideratuko duen tresna.

2010eko abenduan, idazkari kontu-hartzaileak gaiari buruzko txostena egin zuen, non adierazten baitu kontratua betetzeko epea ez dela betetzen ari; halere, adierazten du enpresak ahoz alkateari jakinarazi ziola sektorearen krisi ekonomikoa dela-eta ez daukala obra egin ahal izateko behar dituen hondakinak. Halaber, lehenago aipatutako ez-betetze teknikoak azaldu zituen. Idazkariak ulertu zuen hori guztia nahikoa arrazoi badela hitzarmena amaiarazteko, izandako ez-betetzea dela medio, eta, halaber, enpresari kalte-ordainak eskatu behar zaizkiola; bestela, enpresarekin obra birbideratzeko ahalegina egin daiteke, Herri Lan Departamentuaren eskakizunei erreparatuta. Izan ere, obrarekin jarraitzen ez bada, litekeena da aipatutako departamentuak zehapena ezartzea Udalari.

Txosten hau Karen Moreno Orduña kontu-ikus-katzaileak proposatuta egin da, bera izan baita lan honen arduraduna, indarrean den araudiak ezarritako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 2012ko azaroaren 14an

Lehendakaria: Helio Robleda Cabezas

UDALEKO ALKATE OHIAK ETA ZINEGOTZI OHI BATEK BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI AURKEZTUTAKO ALEGAZIOAK

Garinoango alkate ohi Xabier Barrena Mendióroz jaunak, zeina 2007-2011 legegintzaldia alkatea izan baitzen, behin Nafarroako Kontuen Ganberak udal horren 2010-2011 ekitaldiari eta aurreko ekitaldiei buruz eginiko fiskalizazio txostena ezagutu-ta, zuen aurrean agertu eta honakoa azaltzen eta alegatzen du:

I. kapitulua. Sarrera. Azalpen zatia.

Ulertu beharra dago zuek fiskalizatutako aldia ez dela izan gure Udalak lan egin duen lehenengo eta udal kudeaketa izan den lehenengoa. Hori dela eta, gustatuko zitzaidakeen legegintzaldi horren aurreko ekitaldietako fiskalizazioa egitea, gu kudeaketan hasi ginen garaiko abiapuntua zein zen ezagutze aldera.

Hala izan balitz, ziur da zuen txostenaren ondorioen atalak hobekiago azalduko zukeen guk jardun genuen aldiko kudeaketa. Argibide gisa, honakoak adierazi nahi dizkizuet:

– Egoera funtzional anomalo eta zail batean gaude. Gure entitateko idazkaritzan bost urtetan bost pertsona aritu izan dira idazkari lanetan. Lehenengo hiru idazkariak Untzueko eta Orisoaingo Udalekin partekatu genituen, laguntzeko beste inongo langilerik gabe; hurrengo biek, berriz, gutxi ezagutzen zituzten gure herriak, eta Orbaibarko Administrazio Zerbitzuen Batasuna jarri behar izan zuten abian.

– Egoera ekonomikoa.

2007ko ekainean iritsi ginen alkatetzara, eta zor bizi handi bat aurkitu genuen. 2007ko abenduaren 31n, 150.000 euroko diruzaintza-kreditu bat ordaindu behar genuen, eta zor bana genuen bi eraikuntza-enpresarekin, tokiko azpiegitura planaren kargurako bi obraren ondorioz: batetik, hilerriarren berritze- eta zabaltze-lanek 240.000 euroko kostua izan zuten, lehendik euro bakarria ere ez baitzen dedikatu horretara; bestetik, Amatxi haur eskolaren obra zibilaren likidazioaren ordainketak 60.000 euro inguruko kostua zuen.

Zure txostenean ez da aipatzen, ezta ere, une hartan zein egoeratan zegoen diruzaintza-gerakina. Hemen, komeni da esatea kontzeptu hori egiazki gaurkotu gabe zegoela, zeren eta oraindik ere kobratu gabe zeuden eta jada preskribituta zeuden kopuruak egozten jarraitzen baitzen. Alkatetzaren ebazpen batez erregulatu zen egoera hori. Gero, Osoko Bilkurak onetsi zuen ebazpen hori.

Txostenean ez da jasotzen, ezta ere, nola gobernu-talde honek, Geserlocalekin kontratu bat eginez, preskribitu gabeko ez-ordaintzeak exekutatzekeo prozedura bat abiarazi zuen. Horren ondorioz, gu iritsi ginenean, aurreko ekitaldietako kopuru batzuk kobratu zituen Udalak.

Likideziari begira anomaloa eta jasanezina den egoera horren aurrean –finantza-zama ia onartezina zen erakunde honentzat–, gastu finkoei eutsi eta haiei aurre egiteko beharrean geundenez, zorrak geneuzkan finantza-entitateekin, eta beste finantza-entitate batzuekin birnegoziatzen hasi ginen, zor horiek birfinantzatzeko xedez. Helburua zen zor guztiak kreditu bakarrean biltzea, eta kreditu horren ordainketaren amortizazio-epea luzatzea, beste interes-tasa bat negoziatuta. Horren emaitza izan zen likidezia handiagoa lortu genuela eta aipatutako obren ondoriozko zor guztiei aurre egiteko modua izan genuela.

Jarrai nezake, baina iruditzen zait sarrera gisa nahikoa eta gehiago dela; edo gehiegi, agian.

II. Garinoango Udala.

II.1. Datu orokorrak.

Datu orokorrekin ados gaude, salbu eta azken lerrokadaren edukiarekin, idazkaria udal egoitza honetan egoten den denborari eta administrari ofiziala astean behin egoteari dagokionez. Administrazio ofizialak ez du jendeari arreta emateko funtziorik betetzen, ez bada ordezkotze-lanak egin behar dituztenean; eta idazkariak, berriz, ezezkoa ematen dio herri honetako eta beste herrietako bizilagunei arreta emateko.

II.2. Araubide juridikoa

Inongo oharrik ez.

III. Helburua, norainokoa eta mugak.

Eragozpenik ez, zeren eta hiru kontzeptu horiek entitate horrek erabiltzen dituen lan-jarraibideak adieraztekoak eta azaltzekoak baitira.

IV. Iritzia.

IV.1. Kontu orokorra.

Ados txostenean adierazitakoarekin, baina inbentariarik ez egotearena ez da gaurko kontu bat, eta inongo aholkulari juridikok ez digu ohartarazi haren beharrari edo/eta komenigarritasunari buruz.

IV.2 Legezketasuna.

Ados gaude.

IV.3. Egoera ekonomiko finantzarioa 2011-12-31n.

Aitortutako betebeharrak behera egin zuten krisiaren eraginez diru-bilketa txikiagoa izatearen ondorioz; betetzearen ehunekoari dagokionez, txostenak azaltzen du zein den haren arrazoia. Gastuaren banaketari eta haren finantziarioari dagokienez –taulan jasota daude– zuzenak dira.

Aurrekontu-emaizak superabita islatzen du. Diruzaintza-gerakina positiboa da, baina pentsatuta geneukan hura erabiltzea udaletxe barneko zaharberitze-lanak egiteko. Obra hori 2009/12ko tokiko azpiegituren planean onetsi zen eta hura egitea 2012rako ezarrita zegoen.

Zorpetze-mugak hobera egin du aurreko ekitaldiekin konparatuta.

Zor bizia gutxitzen ari da, eta are gehiago gutxitu da erabilera askeko funtseko ia 60.000 euro erabili baitira horretarako.

Aurrekontu-bilakaerari buruzko taulak gorabeherak dauzka, hartan inbertsioak agertu edo ez agertu.

Gastuak eta diru-sarrerak gehiago gutxitu ziren gastuetan diru-sarreretan baino. Hortxe islatzen mailaguen birfinantzatzea, nahiz eta ez dagoen baloratuta. Egiazki, inbertsioak ez egitea da gastuak eta diru-sarrerak beheratu izatea azaltzen duen arrazoia, baina inbertsioa ez betetzea ezin zaio udal honi egotzi. Tributuen bidezko diru-sarreraren igoeraren arrazoi gisa iragartzen da 2011n haur eskolaren tasak igo direla. Horrek funtzionamendu hobea ere ekarri du. Zor biziaren, finantza-zamaren eta zorpetze-mailaren bilakaera baloratu da, positiboki baloratu ere, ulertzen dudaren arabera. Halaber, aurrekontu-emaizaren hobekuntza islatzen da, gu Udalera iritsi baino lehengokoarekin alderatuta. Diruzaintza-gerakinak balio positiboak dauzka.

Ezinbestez finantza-zamari aurre egin behar zaio, ahal bada hura beheratzeko balio dezaketen baliabideak eskuratuz. Krisialdi ekonomikoa, Nafarroako Gobernuak udalei ematen dizkien baliabideetan izandako murrizketa eta abar eragina izaten ari dira haien okertze ekonomikoan. Garrantzitsua da helmugak jartzea diru-sarrera arrunt eta aparte-ko gehiago erakartzeari begira. Gastu arruntei dagokienez, ulertzen dut administrazio honetan eta une honetan, murrizketa gutxi egin daitekeela, eta are gutxiago murrizketa horiek egiten badira gure zerbitzuen kalitatea gutxituz eta tasak, kargak, zergak, kontribuzioak eta gainerakoak larriki igoz. Gure kasuan, aurrezki bat izan zen udalbatzak funtzionamendu gasturik ez izateagatik.

Nafarroan aurrekontu-egonkortasunari buruzko araudia aplikatzeari dagokionez, nire ustez diru-sarrerak handitu beharko lirateke, gehiago duenari gehiago ordainaraziz, zergak berreskuratuz eta enplegua politika aktiboen bidez sortuz. Horrek guztiak, izan ere, eraginen luke subsidioetan gas-tua txikiagoa izatea eta diru-sarreraren kapituluak gora egitea.

V. Kontu orokorraren laburpena.

V. 1. 2. 3. 4. 5. Aurrekontu-betetzearen egoera-orria.

Iruditzen zait tauletan islatutakoa zuzena izanen dela. Ez nago hura egiaztatzeko moduan; dokumentaziorik ez daukat eskura. Nolanahi ere, datu horiek irakurrita, ez dut aurkitu inongo datu kezkarrik, aurkagarri, errefusagarri edo zehagarririk. Kontabilitatearen arloan dudaren esperientzia txikiaren ikuspuntutik, mugimenduen eta zenbakiaren balorazioa positiboa baino gehiago da.

VI. Iruzkina, ondorioak eta aholkuak.

Atal honetan zentratuko naiz bereziki, eta bertan kritikoagoa izanen naiz –ez txosten-egileekin, baizik eta haiei aholku eman dietenekin, erdizkako egiekin, faltsukeriekin–, eta ahal den guztia argitzen saiatuko naiz.

VI.1. Alderdi orokorrak.

2011ko aurrekontua data horretan onetsi zen aholkularitza txar baten menpe geundelako, guk nahi ez baguen ere. Antzeko zerbait gertatu zitzaigun beste ekitaldi batzuetan.

Administrazio Zerbitzuen Batasuna sortzearen arrazoia izan zen gure udalen administrazioa hobetzeko izugarritzko gogo genuela. Izan ere, gogo, ilusioa eta bertakoak izatea eta bertan geratzea nahi zuten langileak eduki nahi genituen. Nire ustez, ez dugu horrelakorik lortu kasu guztietan, baina esan beharra dago horretan asko egin dugula aurrera.

Ibilgetuaren inbentarioari buruz, lehenago esandakoa. Udal artxiboari dagokionez, baieztatzen dut azken urteetan zer edo zer egin dela hobera, baina oraindik ere lan handia geratzen da egiteko.

Gomendioekin guztiz ados gaude.

VI.2 Langile-gastuak.

Ados egon beharra daukat taulan islatutakoarekin, baina ez daukat daturik taula horretan agertzen denarekin konparatzeko edo/eta kontrastatzeko.

“Udal plantilla” bi atali atxikita egoteari dagokionez, esan behar da hori zor zaiola aldi berean, batetik, batasuneko partaide bat izateari eta, bestetik, gure Udalaren berezko zerbitzuei eusteari. Udalaren langile berekiak (2. multzoa) eta zerbitzu anitzetako langilea ia guztiz heredatutako langileak dira, beren baldintzei eta kontratuei dagokionez. Lehenengo multzokoak, berriz, batasuna eratzearekin sortutako langileak dira gehienak.

Kasu guztietan, haiekin kontratatzeke baldintzak eta moduak bete dira, lan aholkularitza-enpresaren eta kasuko idazkarien jarraibideen arabera. Egungo idazkaria iritsi zenetik eta haren aholkuari jarraituz, aldaketak egin dira haiei buruzko ikusmoldeari dagokionez (udal plantilla versus kontratutako langileak). Musika eskolak 12 urte baino gehiagoko antzinatasun eta tradizioa dauka. Sortu zenetik, haren irakasleak aholkularitza-enpresa baten bitartez kontratatu dira, haren gomendio eta proposamenei jarraituz, eta horrek ez du inongo arazorik sortu. Lanaldi murrizak dituzten kontratutako pertsonak dira, nomina txikiak dituztenak gehien bat; ordutegi eta lanaldi zailak dituzte, eta lan egiten duten instalazioetan, gainera, nola edo halako baldintzak dauzkate. Egungo idazkariak “anomalia” horretaz gogoratzen zen plantillak onesten zirenean, baina zailtasun handiko unean ziren langile horien kaleratzei aurre egiteko (hori al da proposatzen den irtenbidea?) eta hortik aurrera eskolaren legezko funtzionamendua erregulatzeko. Denboran, gainera, ikasturtea oso aurreratuta zegoela iritsi zen, eta ikasturtea arriskuan jartzen genuen. Kaleratzeak kalte-ordain batzuk ordainaraztea ekarriko zuen beti, langile horiek urte askotan zehar sortutako eskubideak tarteko; egoera horren arriskua, gure idazkariak azaldutakoaren arabera, da titulua duen eta musika irakasteko gaitasuna duen pertsonaren batek salaketa jar lezakeela gure aurka; orduan –aurretik, denboraz eta ofiziorik erregulatu ezean– ezinbestez erregulatu beharko genuke egoera. Ondorioa: Bi aldeetarako onena den legezko formula edo konponbidea bilatzeari ezezkorik eman gabe, zergatik jarri hesgailua zauria izan baino lehen? Izan ere, Udaletik joan baino lehenago, kontsulta egin genuen aholkularitza-enpresarekin eta legelari laboralistaren batekin, baina ez genuen betarik izan gai honi konponbide bat emateko.

12/2010 Legea eta lansarien izoztea ez aplikatzea ez ziren izan alkatetza honek populismoan irabazteko bilatutako efektu bat. Ez zen izan, inolaz ere, ohartarazpenik neurriaren aplikazioaren nahitaezkotasunari buruz, ez laneko aholkularitza-enpresaren aldetik, ez udal aholkularitza-enpresaren aldetik. Hementxetik dei egiten diot dagokionari demostra dezan delako ohartarazpena egin

zela. Ulertu nuen langile horien lan-baldintzak ezin nituela aldatu, aplikazio horretatik kanpo zeudelako.

Egungo alkatetzaren ebazpenari dagokionez, non planteatzen baitu zein den lansarien arlo horretarako bere konponbidea, gaia zenbait legelariarekin kontsultatu dut, eta esan didate haien iritziz atzera eragina duen aplikazio hori ez dela egokia.

Gomendioen kapitulua

Ados gaude hemen proposatutakoetatik batzuekin; ez guztiekin.

VI.3 Gastuak, ondasun arruntetan eta zerbitzuetan.

Aztertutako gastuen zenbatekoei eta laginketari dagokionez eta haiek guztiz justifikatuta egoteari dagokionez, ados.

Amatxi haur eskolan izandako akatsei dagokionez, honakoa esan behar dugu:

Eskola horren kudeaketan zorrotzak eta zuhurak izan gara, eta aurreko legegintzaldian egindako adjudikazio-hitzarmen edo kontratuan ezarritako irizpide eta baldintzak bete ditugu (Nafarroako Gobernuak adjudikazioan parte hartu du), bai eta Foru Administrazioak, harekin hitzarmena berritu dugun bakoitzean, eskatutako betekizun guztiak ere. Administrazio honek gastuak eta diru-sarrerak justifikatu ditu, eta kontabilitate-eraginei eta udal aurrekontuei begirako zuzentasunari dagokionez, aitortu beharra dago asko hobetu dela, neurri handi batean, alkateordearen eta administrari ofizialaren lanari esker, ahaztu gabe gehienetan idazkaritzaren babesa izan dutela.

Kontrol guztiak zeuden: eskola horretan ezer txo ere ez zen egiten Udalak horren berri izan gabe; enpresari ordaindu beharreko prezioa Hezkuntza Departamentuak fiskalizatzen zuen ehuneko ehun; departamentuari diru-sarreraren eta gastuen azken zentimoaren berri ematen zitzaion. Idazkariak ia ez du izan inolako laguntza aktiborik, inplikaziorik edo parte-hartzerik gai honetan. Ekonomia eta ogasun zinegotziak, administrari ofizialak eta eskolako zuzendariak bilera, lan eta ahalegin ugari egin zituzten.

Gomendioak.

Ados gaude.

VI.4. Inbertsioak

Ikusten da exekuzioaren ehunekoa txikia dela: gureaz beste administrazio batzuei egotzi behar zaie hori. Gastuen azterketari dagokionez, haien justifikazioa eta araudiaren aplikazioa direla eta dauden betebeharrak bete dira.

VI.5. Transferentzien ondoriozko gastuak. Ados haien balorazioarekin eta haietan aurkitu diren akatsekin.

Murugain Sozietatearen gastuak eta diru-sarrerak agertzeari dagokionez, itxurazko mugimenduak ziren arren, horrelaxe jokatzeko, lagapen-hitzarmenean ezarritakoa betetzeko. Kontrola eta betetzea sozietatearen batzordearen esku uzten zen. Irizpide horri berari jarraitu zitzaion –aurreko udalbatzek ere urte askotan egin bezala– arrazoi politiko batengatik, sozietate horren titularitatea zalantzan eta eztabaidan jarri duelako bazkideen sektore batek. Hartara lotu da guztiei erakustea zeinena izan den eta den sozietatearen jabetza.

Gai hau kontabilitatearen ikuspuntutik bestela egin izan balitz, orobat zor biziaren ratioan eragina izanen zuen. Ados hori datorren legegintzaldian bete behar izatearekin.

Gomendioak.

Bigarrenarekin ados, baina lehenengoarekin ez.

VI.6. Finantza-zama.

Enuntziatuaren lehenengo zatiak ez du behar adina baloratzen gai honetan irten berri den udalbatzak egindako lana. Ados gaude taularekin, baina zenbateko horiek eta amortizazio epea hobetzeko lan egin daiteke eta lan egin beharra dago.

VI.7. Tributu bidezko diru-sarrerak.

Arlo honetan, sistema bideraturik utzi dugu, tributua bermatzeko, lehen egin izan denaz bestera.

Bai betetzeari dagokionez, bai bilakaerari dagokionez, bai tasen ehunekoari eta izapidetzearen eta kontabilizatzearen zuzentasunari dagokionez. Hemen faltan bota dugu Kontuen Ganberak aitortzea aurreko ekitaldietatik heldutako kobrantzak lortzeko egin dugun lana, bai eta Geserloalekin egin dugun hitzarmena ere, etorkizuneko tributuen kobrantza bermatzeko (ez da herritarren gustuko neurria izan).

Hiri-lurren eta landa-lurren kontribuzioaren tasak bereizteari dagokionez, lehenengo aldia da 2/95 Legeko 39. artikulua eta haren edukiaren berri daukagula. Horri buruzko inongo oharatarazpenik ez digute egin Udalaren aholkulari juridikoek.

Gomendioari dagokionez, araudia aplikatu beharra dago.

VI.8. Bestelako diru-sarrerak.

Buru izan nintzeneko udalbatzak gogor lan egin zuen (arrakasta txikiarekin) aparteko diru-sarrera gehiago lortzeko ahaleginetan. Eskertzea da txostenaren zati hori, non baloratzen baita izapidetzea eta kontabilizatzeari egokiak izan direla. Gorabeheren atalarekin, berriz, ez gaude ados.

Ez gaude ados egungo sistema eta adjudikazioa ez gaurkotzearekin edo/eta aztertzearekin (ordenantza berria), horrelaxe jokatu baitu “egungo gobernu-taldeak”. Gaiari heltzeko behar beste denbora eta gehiago izan dute. Aurreko adjudikazioa luzatzeak berarekin ekarriko du udal horri errentamendu horrengatik heltzen zaizkion diru-sarrerak nabarmen gutxitzea. Horrekin, onartu da nekazariaren batek errege-lur ugari utzi dituela. Lagatakoak, izan ere, diru-sarrera gehien eragiten zituztenak ziren, balio handieneko lursailak baitziren, enkante bidez eskuratuak.

Espero dezagun udal horrek kontrola dezala lur horietatik inork probetxurik ez ateratzea, Europako Nekazaritza Politika Bateratuaren diru-laguntza tarteko.

Musika eskolari dagokionez, erabateko desadostasuna daukagu ikasleen jatorria baloratzearekin haien tasak handitzeko edo jatorriko udalekin akordioetara iritsi behar izatearekin.

Eskola hau Garinoainek bere biztanleei eta ibarreko gainerakoei ematen dien zerbitzua da, gure Udalak bere gain guztiz har dezakeena dauzkan kostuengatik; horrenbestez, uste dugu orain arte kudeatzen jarraitu beharra dagoela.

Zer nahi dugu beste udal batzuei eskatuz ordain dezatela gastuak dakarren kuotaren zati bat, haien herritarrak gure eskolara etortzeagatik? Ordaindu beharko ote diogu Garinoaingo herritarrek Barasoaingo Udalari osasun etxera joaten garen bakoitzean? Ordaindu beharko ote du Garinoaingo Udalak gure haurrak Barasoaingo ikastetxera joateagatik? Udal horrek ere (guk bezalaxe) ahalegin ekonomiko bat egiten du ibarreko beste herriei eskaintzen dizkien zerbitzuengatik mantentze- eta ustiatze-gastuengatik.

Gomendioak.

Ados gaude lehenengoarekin (horrelaxe eginen genuen guk, denboraz eta formaz), baina ez gaude inolaz ere ados bigarrenarekin. Musika eskolan ez dago defizitrik (ez da gastatzen aurrekontuetan jasotakoa baino gehiago). Dagoena da gastu bat gure herriak eskaintzen eta mantentzen duen zerbitzuak berezko duena. Ez gaude ados, ezta ere, tasak nabarmen handitu behar izatearekin.

VI.9. Hirigintza.

Ados gaude azalpen zatiarekin.

Gomendioak.

Gutziz ados gaude hirigintza antolamendurako plan orokorra onestea komenigarria izatearekin (lan hori egiten ari da eta haren ordainketa bera ere oso aurreratuta dago jada). Hori lagungarri gertatuko litzateke konpontzeke dauden gai batzuetan.

Plana onetsita, lursailak birzaituta eta Udalaren titularitatekoak diren lursailen kokapena (lursail berekiak eta lagapen bidez eskuratutakoak) zehatz ezagututa, negoziazio prozesua has liteke, Sistema Orokorreko 379. lursailaren gaiari konponbidea emateko, permuta bat eginez eta hiri-lurzoruan eta bestelakoetan ordain bat emanez.

Bigarrenari dagokionez, lastima da gomendio hori aurreko udalbatzek ezagutu ez izatea. Izan ere udalbatza horiek, besteak beste, adreiluaren fenomenoari esker funtzionatzen zuten, eta estatuko eta Nafarroako beste batzuek bezalaxe, ez zuten jakin behar zen denborarekin aurreikusten burbuila zulatu egiten zela.

Zain zaharren usaiak.

VI.10. Gorabeherak eta zalantzak.

Etorkizunean eragina izan dezaketen egitateak direla eta. "Txapardia industrialdea".

1999ko amaieran, haizeak alde jotzen zuela eta orain baino askozaz ere baliabide gehiagorekin, udalbatza batek Txapardia industrialdea garztearen alde egin zuen. Egiatzki, 2002an, beste udalbatza batek toki horretan udal lurren 2 besterendu zituen. Txostenean azaldutako prezioan eta islatutako baldintzekin egin zuen hori. Gogoratzen naiz salerosketaren kontratuak ez duela jasotzen Udalak eroslearekin konpromisorik hartzen zuenik aipatutako industrialdearen hirigintza-garapenaren datari dagokionez. Hau idazten duenak ez daki salmenta horretarako udalbatzak hartu zuen ahozko konpromisoa noraino iristen den. Horrenbestez, ulertzen dut eta bere garaian ulertu nuen, eperik ez dagoenez, industrialdearen garapena gure Udalaren aukera materialen arabera egiten dela eta lege-arrazoiekin inork ez duela ahalmenik besterik exijitzeko.

Gainera, esan beharra dago 2 horiek urbanizatzeko soilak gure Administrazioak ekarriko liokeen zuzeneko kostuari buruzko kalkulu ekonomiko erraz bat eginda, ondorioztatu zela 250.000 euro beharko zirela. Baina kontuan hartuz gero urbanizatu ahal izateko eta lursail horretarako sarbideak eta zerbitzuak errazteko gutxienez ere milioi bat

euro behar zirela, garapen partzial batekin, eta jakinda gure gaitasun ekonomikoa zein zen, kreditura jotzeko inongo gaitasunik ez genuela eta etorkizuneko industrialdean jartzeko zenbat enpresa zegoen interesaturik, obra hori guztiz bideraezina zen.

5.000 m²-ko udal orubearen salmenta hori, urbanizazio gasturik gabe eta lagapenik gabe, "negozio" pisuegia izan daiteke gure administrazioarentzat, gauzatzen den egunean. Zuzenean, urbanizazio gastu gisa, 250.000 euro jarri beharko genituzke eta, gainera, gure lurretatik 2.500 edo 2 gehiago jarri beharko genituzke lursail horrengatik hirigintza-lagapen gisa. Gure baliabideen arazoizko kudeaketa ederra da hori!

Ez da egia gai horri konponbidea emateko lan egin ez dugunik, ez eta jabetza hori mugatzeko ezer ere egin ez denik. Udal honetan, akta bat eta faktura topografiko bat egonen dira, nahitaez, mugaketa fisiko horrengatik eta lursailak zedarritzeagatik.

Ados gaude esaten denean Udala dela bere garaian industrialde hori hirigintza aldetik garatu behar duena. Udalbatza honek horren alde egin du lan, partikular batzuei 2 erosiz, toki horretan daukan jabetza handitzeko.

Arlo horretan, baliabideak eta ahaleginak jarri ditugu industrialdeari konponbide bat emateko.

Lursail horren erosleak eskubidea dauka nahi duenera jotzeko erreklamazio bat aurkezte aldera, baina arlo juridikozionalean, ibilbide laburra edo batere ibilbiderik ez du, salerosketa kontratuari erreparatuta (gogoan dudanagatik). Hori ez da eragozpena harekin bestelako akordio batera iristeko, baldin eta bi aldeentzako onuragarria bada eta kapitulu hau ixteko bidea bada.

*379. lursaila

Nire ustez txostenak fidelki islatzen du gai honetan egindakoa. Nabarmendu nahi dugu bi peritu-lanek balio oso desberdinak eman dituztela. Gogorazi beharra dago HAPOaren behin betiko onepenari esandakoa eta konponbidea gero emateko aukerarena eta erakunde honek inongo alegaziorik aurkeztu ez izatea Garinoango HAPOa berriki argitaratu, jendaurrean jarri eta partzialki onetsi denean. Izan ere, plan horretan ere lursaila sistema orokorrekotzat kalifikatzen zen.

Hilerriko mendi-mazelako obrak.

Ados gaude, funtsean, azalpen zatiarekin. Osoko bilkuretan gai honetan egindako jarduketan berri eman dut. Herri Lan Departamentuari eskatu zaio dossier zabal eta oso bat aurkez dezan obra

horren egoerari buruz. Harremanetan jarri nintzen, halaber, urbanizazio- eta indusketa-lanak eginen zituen enpresarekin, eta aukera eskaini nion obra horrekin jarraitzeko, behin adjudikazio-hartzailearekin kontratua amaiarazita. Enpresa horren bitartez, gure Udalarari aurrekontu bat aurkeztu zuen ingeniari tekniko batekin hitz egin nuen. Ingeniari hori prest zegoen Gobernuak eskatzen zuen segurtasunari eta egonkortasunari buruzko txostena emateko. Baina, beste behin, diru zikinak eta denbora falta zirela eta gai hori ez zen bururaino eramanez.

Atal honetan nire haserrea eta ezinegona adierazi nahi ditut, zeren eta txostenak faltsukeria bati bidea ematen baitio.

Ez da egia idazkari andreak dioena. Idazkariak ez zuen bete alkatetza honek idatziz eman eta erregistro bidez aurkeztu zen agin du bat. Agiria non edo non egonen da, eta bertan hauxe esan nion, gutxi gorabehera: Nahi dut hilerriko mendimazelaren lana dela eta adjudikazio-hartzailearekin egindako kontratua azter dezazun eta ezar dezazun nolako erantzukizunak dituen hura ez betetzeagatik, egokia bada, demanda bat aurkeztu ahal izateko. Horretarako, legegariaren bulegora jo dezakezu (nahi baduzu edo behar baduzu). Ez dakit gai horrekin lanean hasi zen ere, eta hasi bazen, lanak ez zuen emaitzarik ekarri. Badakit ez zuela ezta legegari horrekin hitz egin ere.

Uste dut behin-behineko txostenetik ondoriozta daitekeela gure administrazioak baliabide materialak guztizko zintzotasunez, garbitasunez eta zuzentasunez gobernatu zituela. Ahalegin handia egin genuen haren funtzionamendua hobetzeko, eta erraz zuzentzekoak diren akatsak ere onartzen ditugu.

Amaitzeko, nire burua eskaini nahi dut idazki honekin zerikusia duen edo ez duen oro argitzeko edo beste edozein gai zabalago aztertzeko edo argitzeko, eta horri guztiari buruzko nire bertsioa azaltzeko.

Uste dut horrekin guztiarekin, behin betiko txostenak fidelkiago jasoko duela Garinoainen gertatutakoa informazio osoa egonen baita, eta ez soilik informazio interesatua.

Garinoaingo alkate ohia: Xabier Barrena Mendióroz

Kontuen Ganberak Garinoaingo Udalaren 2010/2011 ekitaldiei eta aurrekoei buruz egindako fiskalizazioari buruzko behin-behineko txostena ezagututa, nik, María Cibeles Pinto Peinado andreak, fiskalizatutako epean alkate-orde eta

Ekonomia eta Ogasun zinegotzia izan naizenak, honakoa azaldu nahi dut:

VI. kapituluari dagokionez, argitu eta alegatu nahi dut ez nagoela ados txosten horretan honako gaiei buruz jasotakoarekin:

Amatxi haur eskola

2012ko ekainera arte, honakoa izanda kudeaketa-prozedura. Ikusita zerbitzua defizitariora izanen zela enpresa kudeatzailearentzat, eta Orbaibarko gainerako udalekin hitz egin ondoren, erabaki genuen guztion artean ordaintzea, herri bakoitzetik eskola horretara joaten diren haurren kopuruaren arabera, Nafarroako Gobernuak ematen dituen moduluetatik gorako gastu guztiak.

Amatxi haur eskolaren gaineke kontrola honela egiten zen:

– Uneoro, Udalak banku-kontuan egiten ziren mugimendu guztiak ikus zitzakeen.

– Eskolako zuzendariak fakturak artxibatuta zeuzkan eta Excel dokumentu bat egiten zuen, hilerro gaurkotzen zuena, kontusail bakoitzari egotzitako gastuekin. Dokumentu hori aldizka bidaltzen zion zinegotzi delegatuari.

– Zinegotzi bat gutxienez ere 2-3 aldiz biltzen zen ikasturtean zehar zuzendariarekin, faktura eta nomina fiskoak betetakoarekin bat zetozela kontrolatzeko.

– Hezkuntza Departamentuari ikasturte bakoitzeko gastuak justifikatzen zitzaizkion departamentu horrekin batera eginez, aurkeztu beharreko fakturak eta zenbatekoak konprobatuz, horretarako bi aldeak bilduta.

– Telefonoz etengabeko hartu-emana izaten zen eskolarekin lotutako gai garrantzitsuak aztertzeko (jarduera osagarriak, material inbentariagarria erostea, langileak ordeztzea eta abar), zeren eta Udala izaten baitzen edozein aldaketa edo moldaketa egiteko onespina ematen zuena.

Udalbatzako idazkariak ohartarazpen batzuk egin zituen 2010-2011 eta 2011-2012 ikasturteetan. Gastuak kontabilizatzeko moduari buruzko irizpideak, dena den, behin baino gehiagotan aldatu zituen, eta bazekien urtero zinegotziak eta zuzendariak bilera bat baino gehiago egiten zutelara, eta egiaztagiria elkarrekin egiten zitzutela.

Orbaibarko musika eskola

Irakasleek jasotzen dituzten lansariak behera egin izateari dagokionez, azaldu beharra dago hasieran ez zeudela jasota Udaleko aldi baterako langile gisa, baizik eta "bestelako langile" moduan; hori dela eta, ez zen murrizketa-neurria aplikatu.

Hala eta guztiz ere, uste dut idazkariaren erantzukizuna zela udalbatzari adieraztea eta informatzea irakasleak Udalarari atxikitako langile izatera pasa zirenez gero, Orbaibarko Administrazio Zerbitzuen Batasuneko langileei eta zerbitzu anitzetako langileari aplikatutako lansari-arau berak aplikatu behar zitzaizkiela. Halako ohartarazpenik ez zizaion sekula egin zinegotzi arduradunari.

Behar diren ondorioak izan ditzan, agiri hau sinatzen dut Garinoainen, 2012ko azaroaren 8an.

Garinoaingo alkate-orde eta zinegotzia izandakoa, María Cibeles Pinto Peinado.

BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI AURKEZTURIKO ALEGAZIOEI KONTUEN GANBERAK EMANDAKO ERANTZUNA

Garinoaingo Udaleko alkate ohiak eta zinegotzi ohi batek aurkeztutako alegazioak aztertuta, ohar horiek txostenari buruzko azalpentzat hartu ditugu, ez baitute haren edukia aldatzen. Txostenari erantsi zaizkio eta txostena behin betikotzat jo dugu.

Hala eta guztiz ere, honako alderdiak xehekiago adierazi nahi ditugu:

- Egindako lanaren norainokoa, txosten honetako III. epigrafean azaldu bezala, 2011ko ekitaldiko kontuen azterketan zentratu da. Hala eta guztiz ere, 2007ko ekitalditik aurrera Udalak izan duen finantza-egoeraren bilakaera aztertu da.

- Langile-gastuei buruzko alegazioari dagokionez, txosteneko VI.2 atalean egindako gomendioa berresten dugu; haren bidez, izan ere, eskatzen zen aldi baterako lan-kontratudun langileen nominetan ordainsarien zuzenketa zorrotz aplikatzeko.

- Musika eskolako tasak igotzea dela-eta eta Garinoainen bizitokia ez duten baina bertako musika eskolara joaten diren ikasleen jatorriko udalekin akordio batera iristeko aukera dela-eta desadostasuna adierazten duen alegazioari dagokionez, jarraitzen dugu pentsatzen neurri horiek aplikatu beharko liratekeela. Musika eskolak eskaintzen duen zerbitzua ez da nahitaezkoa inongo udalarentzat; hori dela eta, ukitutako erabiltzaile edo udal guztiek finantzatu beharko lukete.

- Azkenik, hilerriko mendi-mazelako obrei egindako alegazioari dagokionez, adierazten dugu gure lan-paperean artean idazkariaren txosten bat badagoela, 2010eko abendukoa, non aztertzen baitira obra horiek egiteko sinatutako kontratuaren ez-betetzeak eta ez-betetze horiek izan ditzaketen ondorioak. Halaber, argitu beharra daukagu ez daukagula jasota hortik aurrera beste txostenik egin ote den.

Iruñean, 2012ko azaroaren 14an

Lehendakaria: Helio Robleda Cabezas